

GAIA: LOE • ESPERIENTZIA: ESKOLA BIOKLIMATIKOA ETA  
JASANGARRIA • EKARPENA: CESAR JARA • GALDEIDAZUE:  
ENEKO LANDABURU • ARANTXA URRETABIZKAIA

hh  
hik hasi

102

5 EURO • 2005EKO AZAROA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

*ELKARRIZKETA*

## Tontxu Campos

“Gehiago kez-  
katu beharko  
genuke eskola-  
ren ereduan eta  
ez hainbeste  
titularitatean”



# MAPA BERRIAK EUSKARAZ

## ALDE BIETATIK INPRIMATUTAKO LAU HORMA-IRUDI



### EUSKAL HERRIA

**Fisikoa:** ibaiak, urtegiak, mendilerroak eta mendigailur nagusiak.

**Udalerriak eta eskualdeak:** udalerriak, probintziak, eskualdeak, errepideak, trenbideak...

Eskala: 1:220.000  
ISBN: 84-9783-250-7  
(109X97 cm)

### ESPAINIA

### EUROPA

### MUNDUKO MAPA



**Fisikoa:** Iberiar penintsulako ibaiak, urtegiak, uharteak, mendilerroak eta mendigailur nagusiak.

**Politikoa:** autonomia-erkidegoak, probintziak, hiriburuak, errepideak, trenbideak...

Eskala: 1:1.210.000  
ISBN: 84-9783-251-5  
(121X97 cm)



**Fisikoa:** ibaiak, urtegiak, uharteak, mendilerroak eta mendigailur nagusiak.

**Politikoa:** estatuak, hiriburuak, hiri nagusiak, errepideak, trenbideak...

Eskala: 1:4.800.000  
ISBN: 84-9783-252-3  
(121X97 cm)



**Fisikoa:** ibaiak, urtegiak, uharteak, mendilerroak eta mendigailur nagusiak.

Eskala: 1:30.000.000

**Politikoa:** Peters proiektzioan, estatuak, hiriburuak...

Eskala: 1 cm = 57.000 km  
ISBN: 84-9783-253-1  
(130X91 cm)



# aurkibidea



8  
gaia

## LOE LEGEA

Estatu espainiarreko Sozialisten gobernua LOE Hezkuntzako Lege Orokorra prestatzen ari da. Abenduan aurkeztuko dute Espainiako parlamentuan. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan eragina izango du eta zer datorkigun jakitea komeni da. Legearen zenbait alderdiri buruz galdetu diegu adituei.



16  
elkarrizketa

## TONTXU CAMPOS

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu berria lan berrira egokitzen ari da. Hezkuntza munduan eroso sentitzeko denbora beharko badu ere, zereginak eta erronkak ongi finkatzen ari da.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

LOE: BETIKO LEGEZ...

16 elkarrizketa

TONTXU CAMPOS

22 esperientzia

Eskola bioklimatiko eta jasangarria

Tolosako Samaniego ikastetxea

24 ekarpena

Cesar Jara

28 ekarpena

Gazteek entzuten duten musika...

Yolanda Trabudua

32 galdeidazue

Eneko LANDABURU

35 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Iñaki Eizmendi


42 Atzeko atetik

Arantxa Urretabizkaia

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ixiar Eizagirre Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Felix Basurko Aines Dufau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANIZA S.A.L. Azaleko irudia: Tontxu Campos (Argazki Press). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2005-XI-3). Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# Harpidetza orria



**hik hasi<sub>k</sub>**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaitetz!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararutzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala

## azaroa

### *Irudien eraginak kezkatzen bagaitu, orain dugu hausnartzeko parada*



**Galdera honakoa da: zer egin beharko luke eskolak irudiaren bidez zabaltzen diren informazioa, kontsumismo jarrerak, zapalkuntza harremanak, diruaren eta boterearen aldeko balioak, sortzen duen pasibitatea eta abarrekin, hezkuntza integrala eta giza balioetan oinarritua eskaini nahi badu?**

“670 hilketa, 15 bahiketa, 848 borrokaldi, 419 tiroketa, 14 gaztetxoek bahiketa, 11 lapurketa, 8 suizidio, 32 bahituen harrapaketa, 27 tortura kasu, 11 guda pasarte, 17 drogen inguruko irudi, 9 leihotik behera botatzea, 13 itotze ahalegin, 11 *streptese* eta 20 sexu ahalgabe eszena”. Duela urte batzuek aste bateko epean Frantziako sei telebista kateetan jasotako datuak dira.

Pentsa liteke datu horiek helduentzako programetan jasoak direla eta gure haur-gaztetxoei ez die teleragiten. Inkesten datuek diotenez, aldiz, Espainiako estatuko haur-gaztetxoek ikusten dituzten programen % 50 “helduentzakoak” diren horietakoak omen dira.

Euskal Herriko ikasleek urtean 900-1.000 ordu inguru ikusten egin dute telebista. Hau da, eskolan pa-

satzen duten denbora adina egoten dira telebista aurrean.

Horrez gain, informatika dute eskolan edota etxean, zinemarajoa ten dira, bideojokoetan aritzen dira, kaletik doazela iragarkiak ikusten dituzte edonon... Hori horrela izanda, irudiaren gizartean bizi garela esaten da.

Baina, prestatuta al dago gizartea irudiaren mundua irakurtzeko, interpretatzeko eta ulertzeko? Eskolari eta familiari zer dagokie egitea?

Askotan esaten da gurasoek euren alaba-emeekin ikusi behar dutela telebista. Internetaren erabilera ere jarraitu behar dutela... Baina, ama eta aita kasu askotan etxetik kanpora joaten direnez lanera, gero eta denbora gutxiago geratzen zaie etxeko besteekin partekatzeko.

Halakoetan, begiak eskolarabegi-

ra jartzen dira. Eta eskola kexu da gizartearen kezka eta ezintasun guztiak eskolaren bizkarrean uzten direlako.

Galdera honakoa da: zer egin beharko luke eskolak irudiaren bidez zabaltzen diren informazioa, kontsumismo jarrerak, zapalkuntza harremanak, diruaren eta boterearen aldeko balioak, sortzen duen pasibitatea eta abarrekin, hezkuntza integrala eta giza balioetan oinarritua eskaini nahi badu?

Gizartea asko ari da aldatzen eta eskolak eta gizarteak asko dute hausnartzeko. Hezkuntza ez da eskolarena bakarrik, baina eskolari hezitzea dagokiola kontziente izatea komeni da.

Hik Hasik abenduaren 3rako hausnarketarako zita jarri du: “Telebista eta hezkuntza” jardunaldia Donostiako Miramar jauregian.

# kronika

Iparraldean haurrak eredu elebidunean eskolatzeko eskaria igo egin da. Hala jakinarazi du Ikas-Bik, eskola publiko elebidunetako gurasoen elkarteak.

Iaz baino 200 ikasle gehiago dituzte aurten. Denera 3.300 haur ariko dira eredu elebidunean, alegia, eskola publikoan dihardutenen % 20.

Bada puntu beltz bat, ordea: Baiona-Angelu-Miarritze hirigunea, ikasleen erdiak biltzen dituena. "Inkestak egin direlarik gurasoen % 63k adierazi du euskarazko eruedetan eskolatu nahi dituela haurrak, baina Frantziako Hezkuntzak ez dio segidarik ematen", salatu du Mixel Esteban Ikas-Biko zuzendaritzakideak.



## Nafarroan hezkuntzan gehiago inbertitzea jarri dute helburu sindikatuek

2006ko aurrekontuetan hezkuntzara bideratutako diru saila handiagoa izatea, horixe da lortu nahi duena Nafarroako Irakaskuntzako Langileen Batzordeak. Sare publikoari begira egiten du lan batzorde horrek, eta ekimena honako sindikatuok bultzatzen dute: Afapna, ANPE, CCOO, CSIF, ELA, EILAS eta UGT.

Pasa den ikasturtean ikastetxez ikastetxe egoera aztertu ondoren, zera ondorioztatu zuten: zentro asko zaharrituta daudela, eta berririk ez dela egiten. D ereduko Patxi Larrainzar ikastetxea da horren adibide: urteak daramatza eraikin berriaren zain, eta bitartean aurrez fabrikatutako gelatan aritu be-

har eskolak ematen.

LAB sindikatuak azpimarratu duenez, Nafarroako irakaskuntza sistema publikoaren egoera larria ez da aurreikuspen ezaren ondorio, baizik eta estrategia jakin baten ondorio. Nafarroako Gobernuak hiru helburu zehatz baititu, LABen esanetan: diru laguntzak ikastetxe pribatuetara bideratzea; D ereduko ikastetxeak diru laguntzarik gabe uztea, eta langileen lan baldintzetan murrizketak egitea. 0-3 urteko zikloan euskararen kontra hartutako erabakiak nabarmendu ditu, adibidetzat jarriz gaztelania eta ingelesa uztartzen dituen hezkuntza eredia.

## "Irakaskuntza publikoarentzat aurrekontu duinen alde"

Lelo horrekin egingo du kanpaina Irakaskuntzako Langileen Batzordeak (ikastetxe guztietan emango dute kanpainaren berri). Parlamentuko oposizioko taldeekin ere lan egin nahi du Batzordeak, eta haien konpromisoa ziurtatuta eduki nahi du, 2006ko aurrekontuetan hezkuntzara diru gehiago bideratzea lortu ahal izateko. Gobernuko arduradunekin ere gaia landu nahi dute: Hezkuntza kontseilariarekin eta Toki Administrazioakoarekin bildu nahi dute, zehazki.

## Zientziari helburuak jartzea baino garrantzitsuagoa eta errentagarriagoa da sormena garatzeko giroa sortzea

Pedro Miguel Etxenike



## Uda-Leku hitzartutakoa emateko eske

Frantsesez aritzen diren aisialdi ekintzei ematen dieten tratu bera emateko eskatu die Uda-Lekuk Euskararen Erakunde Publikoari eta Herriko Etxe-  
ei. Izan ere, Herriko Etxeek diru partida bat ematen dute haur bakoitzeko, aisialdiaren prezioa apalagoa izan dadin. Ordea, Uda-Lekuri ez diete besteei ematen dieten diru kopuru bera ematen. Uda-Lekuk 80 herritako haurrak hartzen ditu; aldiz, 30 herriko etxeren laguntza besterik ez du jasotzen. Gainera, laguntzak ematen dizkieten herriko etxe bakan horiek ere, ez dute legegak agintzen duen beste jartzen haur bakoitzeko. Euskararen Erakunde Publikoari egoera bideratzeko eta aterabideak aurkitzeko eskatu dio.

## Behar gorrian

Zailtasun ekonomiko handiak bizi izan ditu Uda-Lekuk. 2.000. urtean Udalbiltzak dirua eman zion zorrak kitatzeko. Zuloa estalita, Uda-Lekuk eskaintza zabaldu zuen. Eusko Jaurlaritzak eta erakunde publikoek akordio bat sinatu zuten gero, diru laguntzak arautzeko: Jaurlaritzak euro bat jarriko zuen euskarazko ekimenak laguntzeko bertako botere publikoek jartzen zuten euro bakoitzeko. Akordio huraz geroztik sortu den Euskararen Erakunde Publikoak, ordea, ez du oraindik hitzarmen hura berretsi, eta ekimena airean gelditu da. Orain arteko hitzarmenak betearazteko eskatzen dio Uda-Lekuk Euskararen Erakunde Publikoari.

## Euskararen geroa, txanponek kolokan

2010. urterako erronka bat du Uda-Lekuk: bilgune berriak irekitzea (10 gutxienez). Titito Agerre zuzendariaren esanetan, baliabide guztiak dituzte eskuan horretarako: begiraleen prestaketa, plangintzak, denak eginda daude. Falta den bakarra borondate politikoa omen da. Inkesta guztiak euskarak Lapurdin, Nafarroa Beherean zein Zuberoan duen egoera larria nabarmentzen dute. Aisialdian euskara hedatzeko tresna guztiak prest direla dio Uda-Lekuk, botere publikoek horretan inbertitzea omen da falta dena.

*Haurreskolak sareko zentroetan, jangelak jartzeko eskatu dio Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari. Izan ere, ireki diren hainbat haur eskoletan ez da zerbitzu hori eskaintzen.*

*Oposizioak batera bozkatu zuen proposamen honen alde: Aralar, PSE eta PP taldeek hitzartu eta EHAK taldeak babestutako ekimena izan zen.*

*Onartutako testuak zera dio: 0-3 urte bitarteko haurrentzat eskoletan jangela ipintzea "kalitaterako oinarritzko osagaia" dela, "emakumeak lan merkatuan sartu eta aukera berdintasuna errazterakoan".*

*Bozkaz onaturik, 2006. urteko irailerako Haurreskolak sareko eskoletan jangelak jartzeko eskakizunak aintzat hartua izan behar du.*

# GAIA

LOE

*betiko legez...*







Hezkuntzako Lege Organikoaren (gaztelaniaz LOE) aurreproiektua diseinatu du Estatu espainiarreko Sozialisten Gobernuak. Abenduan Espainiako Parlamentuan aurkeztuko dute eta, onartuz gero, datorren ikasturtean jarriko da martxan Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Zer datorkigun jakitea komeni.

LOCE ordezkatzera omen dator; baina, LOGSEra itzultzea esan nahi ote du? LOEk erantzuten al die Hezkuntza Sistema honi egiten zaizkion kritika nagusiei?

Adituek LOEz egiten duten irakurketa, datozen orriotan.

# G

# Erreforma, berrikuntzak edo aldaketak



**Felix BASURKO**

EHU-KO IRAKASLEA, HEZKUNTZAREN  
TEORIA ETA HISTORIA SAILAN

Erreforma izena eman geniezaioke al lege honi? Ene ustez, legeak botere borrokarekiko estrategia partidista gisa erabiltzen direnean, duten indar legitimatzailea eta hezkuntza eskubideen bermatzaile funtzioa galtzen dute. Aldaketa politikoei ekartzen duten derrigorrezko eszenifikazio bat besterik ez dira eta, teoriarik, aldaketaren motorra izateko ahalmena duten balio erantsia galtzen dute, apatia giro bat sortuz. Gure kasua hori izanik, LOE proiektuak ez dauka erreformatzat izendatzeko izazerarik.

## Aire berriak

Lege proiektuaren musikak administrazioen eta eragileen arteko harre-

manetan beste talente berri bat jotzen du eta LOCE-rekin etendura argi bat markatzen du. Hezkuntza Sistemak, zerbitzu publikoa izanik, ekitatea hartzen du helburutzat, bai eskusiorik gabeko denon hezkuntza harrera, erlazioa eta atentzioa zuzentzeko, bai gizartea trinkotzerantz aurrera egiteko hezkuntza eragileei eta administrazioei eskatzen dien gizarte erantzukizun kideztan oinarritutako kultura berri bat aldarrikatzeko. Egia esateko, hori da lege proiektuaren aktibo nagusia.

Musikako metaforarekin jarraituz, proiektuak, LOCEri aurre eginez, hezkuntza sistemak "bere baitako norbanako eta gizarte ongizatea"-ren alde egin behar duela dio. Ildo horretatik, aipatzekoa da zer kolektibo biltzen dituen Aniztasun Tratataren barruan: Premia bereziko ikasleak, talentu apartekoak eta etorkinak. Abiapuntu erakargarriak, benetan!

Azkenik, beste erreformatan kanpoan gelditu izan diren ikasketak batzuk arautzen ditu: Arte Ikasketak, Hizkuntza Ikasketak eta Kirol Ikasketak, Lanbide Heziketa ertainarekin eta goi mailakoarekin parekatuz.

Lege proiektuan horiek dira, bereziki, berrikuntzak, nahiz eta beste aldaketa asko izan. Ene ustez, hortik aurrerakoak LOGSEk edo LOCEk bere garaian proposatutako egiturazko erformen egokitzapenak dira.

## Egutegia

- **2006ko urtarrilerako, LOE onartuta eta publikoa izatea espero dute.**
- **2006ko Aste Santurako, administrazioek LOE garatzeko derrigorrezko dekretuak, matrikula eskaintza, irakasleen plantilak, eta abar prestatzen hasi behar dute.**
- **2006ko irailerako, derrigorrez LOE martxan jarri behar da, LOCE-k agintzen duen egutegia betetzeko. Beraz, ez bagara espabilitzen, LOCEren egutegia indarrean sartuko da.**

## LOGSE + LOCE = LOE

• **Haur Hezkuntza.** LOGSEk eman zion jite hezigarria berreskuratzen du bi zikloetan.

• **Lehen Hezkuntza.** LOGSEk proposatu zuen ebaluazio etengabea eta hezigarria berreskuratzen du. LOCEk ezarri zuen Diagnostiko Ebaluaketak mantentzen dira, nahiz eta hezkuntza administrazioen esku utzi. Hiritartasun Hezkuntza gaiak orain arteko zehar lerroak ordezkatzeko dituzte.

• **Lanbide Hezkuntza.** Beste erreformatan kanpoan gelditu izan diren ikasketak batzuk arautzen ditu, Arte Ikasketak, Hizkuntza Ikasketak eta Kirol Ikasketak, Lanbide Heziketa ertainarekin edo goi mailakoarekin parekatuz.

• **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.** LOCEk ezarritako lau ikasturteren egitura mantentzen da. Aniztasunerako LOGSEk garatutako errefortzuak eta curriculum zein antolakuntza neurrien malgutasuna onartzen da berriz ere. Hiritartasun Hezkuntza ikasgaia areagotzen da curriculumeko bi kurtsoetan. Haserako Lanbide Kualifikazioa arautzeko, LOGSEren Gizarte Berme Programetako erantzukizun kidetzaren bidea hartzen du, baina hezkuntza agiria eskainiko da. LOCEren Azkeneko Froga mantentzen da, gainditu gabeko ikasgaiak erreperatatzeko azken aukera gisa. Ebaluazio Diagnostikoa onartzen du.

### Ondorioak

Gaur egun, tratamendu eta estatus desberdina duten bi saretako eskola sistemak ekitatea, ongizatea eta gizarte trinkotzea gauzatzeko musika baino gehiago behar du. Lege proiektu honek ausardia falta erakusten du.

Goitik behera ezarritako erreforma burokratiko hauek, nahiz eta Paris, Geneva, Lisboa edo Bolognako Europako Konferentzien gomendioak izan (Motiboen adierazpena) edota merkatuak eta gizarte aldaketak eskatzen dituen premiak izan, eskola komunitatearekiko kanpo eraginak dira eta zaila dute eskola praktika eta kulturak aldatzea. LOE proiektuan, ametsa eta utopia lantzen duten Aprestuzia Komunitateei buruz, aipamenik ba al da? Horretan, Bigarren Hezkuntzako irakasleriak LOGSErekiko eduki zuen portaera eta jarrera adierazgarria izan zen.

LOE proiektu honek, agian egutegiak bultzata, horrela mantentzen bada, gaur eskolak dituen benetako erronkak planteatzeko abagune ezin hobea galduko du. Zer aipatzen da eskola antolakuntza eta eskola kulturen eraginez? Zer eskolarekiko gurasoen engaiamenduaz? Zer udalen paperaz? Zer administrazioen kulturaz eta ikastetxeen autonomiaz? Zer gizarte hezitzaile eta beste profesionalen paperaz? Nola uler daiteke partaidetzak eta hiri-

arren hezkuntzak duten tratamendu isolatu eta curricularra, eskola bizitzatik at?...

Beraz, "guk, geure eskola" eraikitzeko baliagarria izango al da lege proiektu hau, edukiko duen izaera organikoa kontuan hartuz? Legeek, alde batetik, administrazioen eta eragileen jokabideak hitzetara murrizten dituzte, eta nahiz eskumenak eduki, legean esandako zentzu hertsian garatu behar dira. Bestetik, ahalak eta zilegiak diren teoria eta praktika batzuk, onartutako legean agertzen ez badira ezin izango dira proposatu, garatu ezta finantzatu ere. Adibidez, LOGSE onartu baino lehen selektibitatea bai ala ez eztabaidatu ahal zen, baina 1990etik aurrera gelditzen zen eztabaida bakarra zera zen: ea zer-nolako selektibitatea den egokiena.

Legegile eta aditu batzuek dioteenez, LOE proiektuaren jarrera errealistak meritu bat da, ur sakonetan sartzen ez delako, aipatutako egutegi presioa kontuan hartuz. Nire ustez, hori tranpa bat da paktu politiko berri bat inposatzeko eta, berriz ere, gizarte eztabaida eta akordioa alboratzeko, nahiz eta LOCE bertan behera uztearekin ados egon. Eskola hezkuntzarik gabe pentsa liteke? Nora doa hezkuntza, ausardia, utopia, elkarlana eta engaiatzerik gabe?





**Luis Mari ELIZALDE**

EHU-KO MAGISTERITZA FAKULTATEKO IRAKASLEA

1. Irakasle zeregina askotarikoa da, konplexua. Irakasle lana ez da behin ere erraza izan, baina azken hamarkadetan nabarmenki zaildu da. Lege organikoa aldaketa sakon horren isla besterik ez da.

Irakasleak irakatsi egiten du, eta ikasketak ebaluatzen ditu, eta hobe, gainera, ikas-irakas prozesuak ere ebaluatzen baldin baditu. Eta tutore eta orientatzaile ere izan behar du. Ikasle-en heziketa, zentzu zabalenean, bere gain hartuz. Garapen afektiboa, moral, gizartekoitasuna... Eta horrek guztiak gurasoekiko lankidetzara darama irakaslea. Ez da horrekin aski, irakasle-ak eskolako komunitatean ere erantzukizuna badu: bertako klima, balioak, jarduera osagarriak, irakaskideen arteko koordinazioa, kudeaketa... ere bere lan eremuko egitekoak baitira. Eta irakas-kintza ikertu, esperimentatu, berrikuntzak diseinatu eta martxan jarri behar ditu. Eta hori dena, ekipoetan, lankidetzan.

Aipatu berri diren zeregin horietan, eta besteren bat ere, zerrendatu ditu legeak bere 88. artikuluan. Esan bezala, zeregin profesionala bere konplexutasunean laburbilduz.

## IRAKASLEEN PAPERA

### Zer duzu esateko LOEk definitzen duen irakasle funtzioaz?

2. Lege organiko handi hauek atek zabalik uzten dituzte maiz, ondotik etorri beharko diren garapenen zain (eta menpe). Irakasleen formazioa da oraingo lege honek irekita utziko duen bideetako bat. Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezitzaileen formazioa, tamalez, bere horretan utzi baldin badute ere, DBHko eta Batxilergoko irakasleen irakas formazioari, azkenean, irtenbide normaldua eta duina emateko bidea hartu dela dirudi. Irakasteko ez baita aski edukiak ezagutzearekin! Etengabeko formazioak ere tarte berezia du legean. *Life Long Learning* delakoa profesional guztientzat aldarrikatzen bada, nola ez da bada irakasleentzako eskatuko!

3. Administrazioak irakasleen lan baldintzak duintzeko hitza emanda uzten duela iruditu zait, 100. artikuluan. Mariaje Urangak, hainbeste irakasleren irakasleak, azken Hik Hasin zera dio: "Gaur egun irakasleei eskatzen zaiena ezinezkoa da, ezin da denean espezialista izan. Eta eskatzen duenak badaki ezinezkoa eskatzen ari dela. Horregatik esaten diet gurasoei irakasleak zaintzeko".

Horixe bera da gure administrazioari eskatu behar dioguna, irakasleak zaintzeko. Ekipo lanerako, hausnarke-ta pausatutako, ikas materialak txukun egokitzeko, gurasoei behar bezalajaramon egiteko, ikasleak ongi hartzeko... lan baldintza egokiak sortzen ez badi-

tu, irakasleek ezin izango diote egokiro eutsi erronkari. Denon kaltetan.

## LOGSE + LOCE = LOE

- **Batxilergoa.** LOCEk ezarritako egitura jarraitzen du, hiru Modalitateak mantenduz. Gai komun bi gehitzen dira: Egungo Munduko Zientziak eta Hiritartasun Hezkuntza. LOGSEk garatutako Unibertsitatean sartzeko Sarrera Froga bakarra berreskuratzen da.

- **Irakasleria.** Irakasleen formazioa eta onespina egokitzeko irizpide bikoitzaz jokatu du, publiko edo pribatuaren arabera. Sistema publikoan sartzeko irakasle berrien tutoretza praktikak ezartzen dira. Irakasleriari babes instituzionala emateko neurri batzuk hartzen ditu: laguntza juridikoa, pizgarri profesional eta ekonomikoak...

- **Parte-hartzea, autonomia eta sareak.** Parte-hartzea eta autonomia gaiak batera doaz proiektuan, LOGSEk ezarritako abiapuntuetara itzuliz. Eskola Kontseiluak zeukan kudeatze organoaren izaera berreskuratzen du. LOCEk proposatzen duen sare sistema bikoitza berrikusten da ukitu ahul batzuekin.



**Abel ARIZNABARRETA**

EHUKO GIZARTE ZIENTZIZEN DIDAKTIKAKO IRAKASLEA

## Erkidegoen autonomia

Nahiz eta egin den ahalegina aitortu, hala ere, Lege proiektu honek erabat Autonomia Erkidegoen eskuduntzapekoak diren hainbat esparru eta maila nabarmenki arautzen dituela iruditzen zait. Gauden egoeran, hots, LOGSE-LOCE arteko tirabira normatibo horren pean, nahikoa zuen lege berri honek PPK argitaratutako arauak indargabetzarekin batera, Autonomia Erkidego guztientzat --eta guztien iritziz-- oinarritzko eta komun izan beharko luketen alderdiak definitzarekin soilik. Gainerako guztian, gutxienez egungo eskuduntza autonomikoak errespetatu beharko lituzke, are gehiago, epe motzera aldaketak ere egon daitezkeela aurreikusten den honetan (EAEko eta Kataluniako Estatutuak, Konstituzioa...). Lege proiektuan oinarritzko ("básico") bezala definitzen diren hainbat eta hainbat xedapen zein aginduk duten zehaztasun maila ikusirik, izango dugu zailtasunik beraietan oinarritutako garapen propio bat egitekotan.

## Hezkuntza sareen autonomia

Lege proiektu honen atarian eman zen eztabaida tarte eskasean egindako ekarpenetan, titularitate pribatuko sektoretik zetozen autonomia zabalago baten aldeko ahots tinkoenak, batez ere ikastetxeen titular horien zuzendaritza eskubidea aitortzea eskatuz. Lege proposamenean esaten denari dagokionez, "hezkuntza lege" bat izan ordez, gehienbat, "eskolatze lege" bat den heinean, autonomia eta sareekiko planteamenduak batzerakoan honako hauen inguruan kokatzen da gaia: ikastetxea aukeratzeko eskubidea, aniztasun eta behar berezietan erantzuteko konpromisoa eta baliabideak, finantzaketa eta abar. Oro har, epel xamar jokatzuz, keinu batzuk azalduz baina asko zehaztu gabe utziz gehienetan, zalantza eta irakurketa interesdunei bide emanez.

## Ikastetxeen autonomia

Lege proiektuak bat egiten du erabat errotuta dagoen diskurtso teorikoarekin; hau da, ikastetxeen autonomia hezkuntza komunitatearen konpromiso eta erantzukizun maila bultzatzera datorren faktore bat den neurrian, hezkuntzaren hobekuntza eta kalitate eragile garrantzizko bat bihurtzen dela. Hori horrela, hobetsi ez ezik Autonomia Erkidegoetako hezkuntza administrazioek arlo honetan jarraitu beharreko bidearen arrastoa ere seinalatzen du. Beraz, norbere zelaian jokatzeko tokatzen zaigun partida dugu hau: EAEko administrazioari da-

## AUTONOMIA

### LOEk autonomia aski uzten al du erkidegoetan, hezkuntza sareetan zein ikastetxeetan?

gokio, hezkuntza eragileekin elkarlanean, ikastetxeen autonomia garatzeko planteamendu osatu bezain landu bat egitea. Baina, edonola ere, ez geneukan honelako baten zain egon beharrik urrats hori eman ahal izateko, ikastetxeen autonomia garatzeko aukera ez ezik agindua ere ematen baitzuen Eskola Publikoaren Legeak berak. Halere, bat gatoz gehienok praktikan ezer gutxi egin dela aitortzerakoan: bai ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta batez ere antolakuntza eta ekonomiko-finantzieroari dagokionez, eta baita ere eskolaren autonomiari buruzko lege propioa argitaratzeko ematen zuen aukera eta azaltzen zuen borondatearen konkrezioari dagokionez. Etorkizuneko euskal hezkuntza sistema bere osotasunean arautzeko xedez letorkeen lege berri batek ezinbestean jaso beharreko atala berau, nire ustez.





**Imanol IGEREGI**

EUSKADIKO KOOPERATIBEN ELKARTEA

Ikastetxe kontzertatuen trataera aztertzeke bi bide hauta daitezke:

1. LOEren helburuak gauzatzeko legeak berak aukera ematen duen ala ez hausnartzea.

2. Norberaren ikuspegia, hots, ikastetxe kontzertatuen jarrera eta zereginetatik abiatzea

Espazio labur honetan biak uzartzen ahaleginduko naiz, baliabideen eta irakaskuntzaren programazioaren gaiak aztertzeraz mugatuz.

Irakaskuntza zerbitzu publiko gisa ulerturik, ikastetxe kontzertatuen trataera ezin da aztertu LOEren helburu nagusia adierazi gabe. Lege honen Zioen Adierazpenean ondorengo esaten da: "laburbilduz, ikasle guztien hezkuntz-maila hobetu nahi da, hezkuntzaren kalitatea eta haien banaketaren ekitatea uzartuz" (4. orrialdeko 38. lerroa). Ondoren, Legearen 84.1 atalean programazio orokorrean parte hartzen duten ikastetxe guztiek "era orekatu eta egokibatez beharizan bereziko ikasleen banaketari erantzun behar diotela eskolatze prozesuan", 87.1 atalean

idea hau berretsi eta 88.ean erabateko doakotasuna bermatu behar zaiela gehitzen da. Printzipioz, helburu eta proposamen hauekin, baldintza egokiak ziurtatuz gero, bat etor gintezke.

Hezkuntza-eragile asko gai horiei eusteko garaian premisa honetatik abiatzen gara: "herri baliabidez hornituriko ikastetxe guztiok beharizan eta eskubide berdinak izan behar ditugula", hots, beharizan berdinei erantzun behar baldin badiegu (horren barruan, beharizan berezi eta ekonomiko guztien ikasleen eskolatze, bazterkeriarik gabe), eskubide berdinak (ikasle eta ikasgelako kosteak, irakasleen dotazioak, oinarritzko irakaskuntzaren programazioa, esate baterako) eduki behar harko genituzke. Zoritxarrez, moduluaren definizioa egiten denean (117 eta 118. artikulua) horrelakorik ez da legean antzematen. Ezin zaio inori doakotasuna exijitu eta bermatu, ezta berdintasuna aldarrikatu ere, horretarako baliabide nahikorik ez badago. Ondorioz, legearen helburu nagusietakoa, "ekitatea eta kalitatea ikasle guztientzat", kolokan jartzen dute legearen egileek. Filosofian egon daitekeen aurrerapena errealitatean ez da gauzatzeko.

Bestalde, lege honetan sumatzen den beste aldaketa zera da: beharizan bereziko ikasleei egoki erantzuteko administrazioak beharrezko baliabideak eman behar ditu, "dotazioak gauza-

tzeko irizpideak berdinak izango dira herri ikastetxe zein ikastetxe kontzertatuetan" (72.2 atala). Ondoren, kontzertuaren modulua adierazterakoan, antzerako irizpiderik ez da inolaz ere ikusten.

Irakaskuntzaren programaziora etorrira, (109.1,2 eta 3 atalak), bi ondorio argi daude:

- zerbitzu publikoaren programazioa eta planifikazioa ez direla osagarritasunez aurreikusten: biak dira zerbitzu publikoaren parte (testuan), baina bata (kontzertatua) bestearen menpe azaltzen da legean.

- programazio honetan administrazio (gune) zentralaren ekimena baino ez da ikusten, ez eragile sozialena, ez udal-administrazioarena, ezta beste inorena ere.

Epe laburrean LOE aukera galdu baten kronikatzen hartu beharko al dugu?

## KONTZERTUA

Ikastetxe kontzertatuen gaia aipatzen du LOEk.  
Arazoari irteera planteatzera iristen al da?





**Matilde SAINZ**

MONDRAGON UNIBERTSITATEAN, HUHEZI FAKULTATEKO  
IRAKASLEA

Eskola da eremu egokiena kultur eta hizkuntza aniztasunak behar duten trataera emateko, badakigu eta, eremu horretan kohesio soziala eta pertsonen nortasunaren garapena lortzeko mikrokosmos aproposa eta kontrolatua sor daitekeela. Hona hemen, mikrokosmos hori lortzeko beharrezkoak diren zenbait baldintza. Baldintza horietan oinarrituko gara LOE aurreproiektua aztertzeko.

Aipatu mikrokosmosa lortzeko, eskolak honako alderdiak izan behar ditu kontuan: ezagutarazi aniztasun soziala, kulturala eta hizkuntzazkoa errealtate positibo eta konplexu modura, bideak jarri identitatearen bizipena problematikoa izan ez dadin, testuinguru egokia sortu interakzioak ekitatiboak izan daitezen, kultur gatazken trataeran hezi, elebakar ideologiaren orde eleaniztasunarena suspertu, ikasgelak hizkuntzen erabilera eremu bihurtu... Irakasleen formazioari dagokionez, hizkuntzak jakiteaz gainera, aipatu alderdiak aurrera eramateko formatu.

LOE aurreproiektura etorritz, honakoak aurkitu ditugu: Hezkuntzaren oinarriak eta helburuak atalean ikasle

guztientzako hezkuntza aldarrikatzen da, inklusioa bermatzen duena. Horrez gainera, Estatuan dagoen hizkuntza eta kultura anitzen errespetuan formatzea eta kulturartekotasuna gizartearen elementu aberasgarri modura tratatzea. Curriculumaren atalean gabezi handi bat ikusten da: Haur Hezkuntzako etapen ez dira agertzen hizkuntza koofizialak, baina bai atzerriko hizkuntza. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako etapetan, hizkuntzari buruzko edukiez ari den guztietan, gaztelania eta hizkuntza koofiziala aipatzen ditu. Bestalde, Lehen Hezkuntzako helburuetara etorrita, nork bere eta baita besteen kulturaren oinarriak ezagutzea, baloratzea eta errespetatzea aipatzen da. Batxilergoan, berriz, nork bere hizkuntza eta kulturari buruzko helburuak desagertzen dira eta ikasleen hiritartasun demokratikoa Espainiako eta Europako konstituzioarekin lotzen da. Lanbide

Heziketan, berriz, ez dago kulturartekotasunari erreferentzia egiten dion ezer. Irakasleen formazioari dagokionez, ez da aipatzen ohiko titulaziotik aparteko beste baldintzarik. Ingeleseko irakasleentzat, aldiz, aipamen berezia egiten da. Gurasoen zein ikasleen eskubideen artean ez da aipatzen eskolatzeko hizkuntza hautatzeko eskubidea.

Laburbilduz esan, hizkuntza aniztasuna eta kulturartekotasuna suspertzeko keinu batzuk egon badaudela maila batzuetan (DLH eta DBHn) baina ezin direla seriotasunez aurrera eramanez testuari koherentzia falta handia nabari zaiolako. Bestalde, ez da Hezkuntza bere osotasunean aurreikusten eta ikusitako gabeziak nabarmenak dira Haur Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan, nagusiki, halaber, irakasleen formazioari dagokionez.





**Joxe ARREGI**

TEOLOGIA IRAKASLEA. FRANTZISKOTARRA

## ERLIJIOA

**LOEk erlijioari emango dion trataera eztabaidagai dago. Nola ikusten duzu proposamena, eta zein da zuk erlijioari emango zeniokkeen lekua?**

**1.** Argi eta garbi diot hasieratik bertatik: Gobernu Sozialistaren proposamena gaurdaino inoiz izan den arrazoizkoena iruditzen zait. Hots: ikastetxe publiko guztietan irakats dadila erlijioa derrigorreko irakasgai ebaluagarri gisa, baina modu ez-konfesionalean (erlijioen historia, fenomenologia, filosofia...). Eta erlijio konfesionala ere eskain dadila, ikasleek (nahiz gurasoek) hala eskatuz gero, baina eskola orduetatik kanpo, ebaluaketari balio akademikorik aitortu gabe eta erlijio guztiei aukera berdinak emanez (kristautasuna, islama...). Kristautasunak ez baitu, berez, beste edozein erlijio baino eskubide gehiago eskolan. Hezkuntzaren laikotasuna hori bada, ongi etorri bedi!

**2.** Erlijioaren presentziari, ordea, guztiz funtsezkoa deritzat haurren eta gazteen hezkuntzan. Artearen, literaturaren, etikaren presentziari bezain funtsezkoa. Gure haur eta gazteek nola ulertuko dute gure historia eta kultura, erlijioaren berri

ikasi gabe? Gaurko euskal literaturako bertako hainbat obra eta pasarte ere nekez uler daiteke kultura biblikorik gabe. Hiruzpalau titulu aipatzearren: *Consummatum est* (J. M. Irigoien), *Hamar manamenduak* (X. Etxaniz), *Eta emakumeak sugeari esan zion* (L. Oñederra), *Zeruetako erresuma* (I. Borda). Edo bi pasartetxo ausaz: "Kurloiak Probidentziaz mintzatzen dira lorategiko jazminen artean saltoka" (F. Juaristi, *Arinago duk haizea, Absalon*). "Ba al dakizu zenbat denbora egon ziren Adan eta Eva paradisuari?" (B. Atxaga, *Gizona bere bakardadean*). Hizkuntzan ez ezik, nortasun kolektiboaren sus-traietan daramagu erlijio biblikoa (onerako eta txarrerako). Eta norberaren buruari zor zaion arreta zor diogu.

**3.** Baina kultura baino ere areago, bizitza eta errealtatea bera daude jokoan. Zientziak, makinak eta kontsumogai guztiak ez dira nahikoa: *izaten* ikasi behar da. Jakintza guztiak ez ditugu aski: onak eta zoriontsuak izateko *jakinduria* behar dugu. Jakinduria horixe da niretzat erlijioa, eta guztiz gauza sinpleak eta funtsezkoak erakusten dizkit: begiak zabaldu eta begiratzen, oinak lurrean lasai tinkatzen, biriketean airea esker onez hartzen, neure burua eta izaki

guztiak maitatzen, bizitzako hainbat oinaze eta gatazka bakean eramaten, nire azken galderak ez itotzen, nire lehen ametsei atek zabaltzen, konfiantzaz bizitzen, itxaropenez hiltzen... Horretarako egon behar luke erlijioak ikastetxeetan.

**4.** Bai, badakit: pertsekuzio, zapalketa, umilazio, erreketeta eta asmatu ahaleko ankerkeria guztiak eragin dituzte erlijioek milaka urtetan. Zergatik? Erlijioa sineskizun, erritu eta arauekin identifikatu izan delako. Boterearen tresna bihurtu delako. Azken batean -nire ikuspegitik- egiazko erlijio-bizipen libre eta libratzailea ukatu delako. Libra dezagun erlijioa, erlijioak libra gaitzan! Zerk libratuko gaitu bestela?

## LOE interneten

[www.mec.es/files/Anteproyecto\\_Ley\\_Organica\\_Educacion.pdf](http://www.mec.es/files/Anteproyecto_Ley_Organica_Educacion.pdf)

# tontxu campos

## ELKARRIZKETA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa sailburua

“Gehiago kezkatu beharko genuke  
eskolaren ereduan eta  
ez hainbeste titularitatean”





**// Euskal Hezkuntza Sistemaren Legea egiteko asmoa dugu eta horren barruan lehentasuna hausnarketa bat egiteak du: nora joan nahi dugu eta nola? Zein da eskolaren funtzioa?**



Berrikuntza eta Ekonomia Sustapenetik Hezkuntzara eta Bizkaiko Diputaziotik Eusko Jaurlaritzara aldatu da Tontxu Campos barakaldoarra. Hezkuntza sailburu berriak zenbakiak egiten jarraitu beharko du, baina elementu gehiagorekin konbinatu beharko ditu.

Izan ere, hezkuntzan pertsonak numeroen gainera daude, eta hori badaki. Horregatik, hezkuntzari buruzko hausnarketari, balioei eta jarrerari eman- go diela lehentasuna dio.

Oraindik ere legealdi hasierako lanekin dabil; honekin eta harekin bildu, bilera baten atzetik bestea, bisitak han eta hemen... Halere, ez zaio presarik nabaritzen hizketan hastean. Aurrean duenari denbora eskaini, eta gero gerokoak.

Badaki zaku bete lan duela, baina ez dirudi bel- durtuta dagoenik; aitzitik, lantalde osoa martxan jarria dauka.

**Zein dira legealdi honetarako dituzun erronka nagusiak?**

Erronka estrategikoa zera izango litzateke: ikustea hemendik 10-15 urtetara gure gizartea nolakoa izango den edo nolakoa beharko lukeen izan, horrek zer-nolako pertsona suposatuko lukeen eta hori jakinda edo hausnarketa hori eginda, erabakitzea hezkuntza sistemak zer paper jokatu beharko lukeen pertsona horiek osatzeko. Hori da gure erronka estrategikoa.

Izan ere, gure gaur egungo hezkuntza sistemaren oinarri eta zutabeak, hein handi batean, orain dela 20 urte diseinatu ziren. Gure gizartea ez da orduan bezalakoa, eta ziur aski ez da izango hemendik 15-20 urtetakoaren modukoa. Orduan, hori da erronka estrategikoa, kontuan hartuz pertsona bat zenbat denboran egoten den hezkuntza sistemaren barruan. Gizarteko beste hainbat arlotan zikloak motzagoak izaten dira, baina kasu honetan nahiko luzea izaten da.

Niretzat hori da kezka eta erronka nagusia. Ez da erraza azterketa bat egitea eta nolako gizartea izango dugun jakitea. Eta ez da erraza izango zer-nolako pertsonak beharko ditugun jakitea. Ondorioz, ezta ere eskolak zer paper jokatu behar duen zehaztea. Baina ziur aski joera batzuk aurreikustea posible izango da eta horiekin hausnarketa sakon bat eginez, agian gai izango gara bihar-etziko gizarteak izango dituen beharrei erantzuteko pertsonak osatzen laguntzeko.

**Horra iristeko, daukagun errealitatetik abiatuta, zein dira zure egitasmo nagusiak?**

Gobernu egitasmoan egindako apustu bat 0-3 zikloari bultzada ematea da. Urtero 1.000 plaza gehiago eskainiko ditugula agindu dugu.

Lanbide Heziketan, bigarren planaren garapena daukagu esku artean. Orain arte lortutako arrakasta mantendu behar dugu. Lanbide Heziketa bukatzen duten % 87 inguruk kontratua lortzen dute. Zentzu horretan, berrikuntzari garrantzi handia eman behar

zaio. Lanbide Heziketako lege bat sus-  
tatzea ere helburu bat izango litzateke.  
Azken urtetan egin eta antolatu diren  
hainbat erakunde bildu, uztatu eta etor-  
kizunari begirako Lanbide Heziketako  
zutabeak diseinatu edo bermatu nahi  
ditugu, gero urtez urte jantzi egokia jar-  
tzeko.

Nabarmena da ahalegin berezi bat  
egin behar dugula euskalduntze proze-  
suan, eta eleaniztasuna ere garrantzi-  
tsua da Lanbide Heziketan. Gutxi gora-  
behera % 20 eskaintzen bada D ere-  
duan, irakasleen aldetik % 50 inguruk 2.  
hizkuntza eskakizuna lortuta izango luke.  
Hor euskalduntze prozesua mar-  
txan jartzeko alderdi garrantzitsu bat  
daukagu, jakinda espezializazioa oso  
garrantzitsua dela eta agian ez dela  
nahikoa izango 2HE izatea.

Lehentasunak ezartzerakoan, eus-  
kalduntzeko ahalegina zein ziklotan  
egin behar den ikusi beharko genuke,  
eta hor jendearerikiko harremana eska-  
tzen duten ikasketak lehenetsi beharko  
genituzke, eta euskararen presentzia  
handia den eskualdetan eman lehen  
urratsak.

Ikasmaterialak euskaraz eta digita-  
lizatuta jartzeko ahalegina ere egiten  
ari gara.

Unibertsitate alorrean erronkarik  
nagusiena euskal unibertsitateen sis-  
tema Europako goi mailako hezkuntza  
esparruarekin eta ikerketa esparruare-  
kin txertatzea da. Guk uste dugu Euskal  
Unibertsitateen Sistemaren Legea gara-  
tuz nahiko tresna izango genituzkeela  
horretara bideratzeko.

Ikastereduak ere hor dauzkagu.  
Ebaluazio bat egin da eta datu batzuk  
badauzkagu. A ereduko ikasleek ez du-  
te B2 maila lortzen, B eredukoak % 33ra  
ez lirateke iritsiko, eta D ereduan % 68k  
lortuko luke maila hori. Horri ere heldu  
beharko diogu.

Baita curriculum propioari ere, be-  
rriro ere etorkizunari begira. Denontza-  
ko curriculum bat behar dugu, ofiziala,  
eta batez ere, etorkizunari begiratzen  
diona, pertsona horiek osatzen lagun-  
duko diguna.

Horrekin batera, beste apustu bat



Euskal Hezkuntza Sistemaren Legea  
egitea da.

Tarte horretan beste helburu opera-  
tiboak ere badaude, besteak beste:  
etorkinak, eleaniztasuna, eskola inklu-  
siboaren ikuspegia...

### **Hizkuntza ereduak. Emaizak ikusita, aldaketa beharrezkoa da. Datorren ikasturtean eredu berri bat edukiko al dugu?**

Azkarregi izango litzateke beste  
eredu bat edukiko dugula esatea. Ere-  
duen bilakaera nola doan esan ahal  
izango dugu; hau da, orain eredu bate-  
an dagoena eredu berean baldin bada-  
go datorren urtean, horrek zer ekarriko  
duen. Baina uste dut proposamen bat  
egin ahal izateko denbora gehiago  
behar dugula. Egia da Eusko Jaurlari-  
tzak derrigorrezko eskolaldiaren bu-  
kaeran gazteak ofizialak diren bi hiz-  
kuntzetan komunikatzeko gai izatea  
bermatu behar duela, baina ikastere-  
duekin lotuta dago eleaniztasuna ere. 3.  
hizkuntza nola jorratzen dugun ere az-

tertu behar da. Eta legealdi bukaerarako  
4. hizkuntza sartzea ere aipatu dut nik.

### **Euskal curriculumaren kasuan, aurreko legealdian ildo bat hartu zen. Horri eutsiko al zaio?**

Bai, memento honetan Hezkuntza  
Sailak azken materialak jaso ditu eta az-  
tertzen ari gara. Hurrengo fasea eskolei  
eta hango eragileei bideratzea izango  
da. Eztabaida dezagun, aberastu deza-  
gun, zuzendu dezagun... horrekin az-  
ken bertsioa atera eta pixkanaka-pix-  
kanaka ikasmaterialak egin bitarteko  
prozesuak jarraituz.

Nik neuk uste dut ahalegina egin  
behar dugula curriculum ofiziala izan  
dadin. Horrekin batera, niretzat oso ga-  
rrantzitsua da gero curriculum erabili  
beharko duten talde guztiak implika-  
tzea; beste modu batera esanda, nire-  
tzat ez da soilik arau edo ebazpen bat  
hartzea, baizik eta ahalik eta adostasun-  
ik zabalena hartzea komunitatean.  
Zeren ebazpen batekin gauza bat lega-  
la edo ofiziala dela esan dezakezu, bai-

**// Hizkuntz  
ereduei dagokienez,  
datorren ikasturterako  
azkarregi izango  
litzateke beste eredu  
bat edukiko dugula  
esatea. Uste dut  
proposamen bat egin  
ahal izateko denbora  
gehiago behar  
dugula.**

**//**

na ez duzu lortzen jendeak erabil dezan. Horretarako denen parte-hartzea behar da prozesuan.

**1992an eskola ituna egin zen epe baterako eta geroztik ez da berritu. Orain Euskal Hezkuntza Sistemaren Legea aipatu duzu. Ituna ala legea? Zer lehenesten duzu?**

Legea egiteko asmoa dugu. Hori, baina, hainbat eta hainbat eragilerekin egonda eta denbora eskainiz egin behar da.

Edonola ere, horren barruan niretzat lehentasuna hausnarketa zabal bat egiteak izango luke; alde batetik eskola komunitatean bertan, eta bestetik gizarteko hainbat erakunderen iritziak ere garrantzitsuak izango dira. Nora joan nahi dugu eta nola? Hori hausnartu beharko litzateke, eta hori lege baten barruan koka daiteke.

Hausnarketa horretan oso garbi izan behar dugu zer paper jokatu behar duen eskolak, baina baita gizarteko beste taldeek ere, ez eskolak soilik. Hasteko, familiak. Eskolak ezin du ordezkatu familia. Familia da gizarteratze mailaren lehendabiziko pausoa. Hala ere, familia eta eskola ez dira balio iturri bakarrak. Hor dauzkagu komunikabideak, aisialdiko bideoak, jokoak, komikiak... Arrakasta izateko beharrezkoa da eskola, familia eta gizartearen arteko elkarlana.

**Eskolak edo hezkuntzak nora eta nola joan behar duen hausnartu behar dela diozu. Zuk zer diozu? Zein da zure hausnarketa?**

Orain bizi garen egoerari begira, niretzat hezkuntza balioak, jarrerak, jokabideak dira; gero oinarritzko ezaguerak batzuk; eta ondoren gaitasunak. Niretzat hezkuntzak ez luke helburu gisa profesional edo langile egokiak prestatzeari soilik eduki behar, baizik eta pertsonak osatzea. Eta pertsonok jarrerak, balioak eta jokabide mota batzuk dauzkagu. Horrez gain, ezaguera batzuk eduki behar ditugu: irakurtzen jakin behar dugu, kalkulatzeko jakin behar dugu... Horiek oinarritzko ezaguerak dira.

Ezagueraren bilakaera hain azkarra denez eta hainbat teknologia eta tekniken bizitza zikloa hain murrizta denez, oso zaila da ezaguerarik egokiena zein den planteatzea. Horregatik hitz egiten da *longlive learning* edo bizitzan zeharreko etengabeko ikaskuntzaz. Hor bai, gure gazteek beren ezaguera egokitzeko gaitasuna behar dute gizartearen beharrei erantzun ahal izateko. Baina balioak, jarrerak eta jokabideak bai direla erabat beharrezkoak.

**Balioak, jarrerak... Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan bildu ohi dira. Beraz, hori funtsezkoa dela ondorioztatzen badugu, proiektuaren hainbat zutabe ere**



**bai, besteak beste langileen egonkortasuna. Zer gertatzen da horrekin gaur egun?**

Bai, langileen egonkortasuna ezinbestekoa da. Aita gisa ere sufritu ditut egonkortasun ezaren ondorioak.

**Horren jakitun izanik eta orain zauden karguan egonda, zer aukera ikusten dituzu hori aldatzeko, beste gurasoek zuk sufritutakoa sufri ez dezaten?**

Etorri naizenetik egin dudan lehen gauza hori izan da. Sistema hain zabala eta konplexua denez, hainbat arau eta eskubide indibidual dituen eta hainbat pauso bermatu behar direnez, ez da lan erraza.

Une honetan egiten ari garen ariketa zera da: ikusi zer plaza libra daitezkeen horietara lan eskaintza publikoa deitu ahal izateko eta arazoak zatikatu kudeaketa ahalik eta azkarrena izan dadin. Niretzat oso garrantzitsua da egonkortasunaren gaia.

**Irtenbide horiek egokiak izan daitezke, baina ez al dira, azken batean, petatxu batzuk? Horren azpian ez al dago egiturazko arazo sakon bat? Duela 100 urteko egitura bat daukagu eta hurrengo 10 urteko erronkei erantzun nahi diegu.**

Hori sistemaren ezaugarri bat da. Hezkuntza Sailean bertan hainbat eta hainbat zerbitzutan daukadan jendea ez da egonkorra, eta nola demontre kudeatuko dut nik hezkuntzako sistema bat egonkorra ez den langileriarekin? Ziur aski askoz ere neurri sakonagoak beharko lirakeke, eta horiek sistema osoan izango lukete eragina, ez hezkuntza sisteman soilik. Hezkuntza sistema funtzio publikoko sistema baten barruan dago eta hor, agian, beste sistema batzuk era zitezkeen. Horrek arlo guztiei eragingo lieke: hezkuntza sistemari, osasun sistemari, suhiltzaileei... denei.

**Zer iritzi duzu publiko-pribatuaren arteko eztabaidaz?**



Nik uste nuen hori aurreko mende-ko eztabaida zela eta orain askoz gehiago kezkatu beharko genukeela eskolaren erudian: eskola inklusiboan, balioetan, kalitatean... eta ez hainbeste titularitatean, behintzat eztabaida ez monopolizatzeko edo desbideratzeko gai horrekin. Izan ere, sarritan beste eztabaida batzuk estaltzeko arriskua dakar.

Hori esaten dut, hein handi batean, hemen titularitate pribatua duten ikastetxe gehienak izaera gisa irabaziasmorik gabekoak direlako eta benetan, kasu gehienetan, zerbitzu publikoaren bokazioarekin planteatzen direlako. Gainera, hainbat eta hainbat kasutan ekimen sozialarenak dira, kooperatibak dira (gurasoenak, langileenak, guraso eta irakasleenak...). Egia da munduko beste herrialde batzuetan badaudela negozio gisa eratzen diren ikastetxeak eta unibertsitateak, egia da. Baina hori ez da hemen gehienetan gertatzen dena.

Agian ez dugu alboratu behar publiko-pribatu eztabaida, baina behintzat ez dezala ezkutatu niretzat hezkuntzako eztabaidarik garrantzitsuena dena: nolakoa izan behar du eskolak, zer balio jorratu behar dira, kalitate maila, zer gaitasun bultzatu behar dira...

Eta hor bai, diru publikoarekin babesten baldin badugu hezkuntza, joka

dezagun denok eskema edo testuinguru beraren barruan.

**Posible ikusten al duzu egin asmo duzun legean sare bakarreko hezkuntza sistema planteatzea?**

Ziur aski oso zaila izango da euskal hezkuntza sistema euskal hezkuntza komunitate bat bihurtzea, horrek dakarrenarekin. Nik, egia esateko, asetzat emango nuke nire burua baldin eta lortuko bagenu gutxienez sare moduan ikastetxe bakoitza nodo bat izanda, elkarrekin joka dezaten beraien praktikarik onenak elkarren artean partekatuz eta arazoak eztabaidatuz.

Ikastetxeetan dagoen ezaguera edo eskarmentua zabaltzeko gai izango bagina eta gure hezkuntza komunitatea benetan komunitate bihurtu, horrek dakarrenarekin, nahiko arrakastatsua izango ginateke sistema gisa.

**Amaitzeko, zer esango zenieke irakasleei?**

Beraiek direla hezkuntza sistemaren eragile nagusiak. Guk, Sail bezala, konfiantza osoa dugu gure irakasleengan.

Benetan gizarte bat osatzen duten pertsonak prestatzeko prozesuan irakasleak dira eragilerik garrantzitsuenak. Gizartearen balioztatzea edo prestigioa merezi dute. Animo, ekin eta beti egongo naiz zuen esanetara.

## Eskola bioklimatiko eta jasangarri bakarra

### Tolosako Samaniego ikastetxea



Lehen eskola bioklimatikoa Tolosan eraikiko dute, 2006/07 ikasturterako. Haur Hezkuntzarako izango da. Eraikinak hainbat energia alternatibo bilduko ditu, bi helbururekin: ingurumena zaintzea eta didaktikoki baliatzea, haurrek bizitzeko ikas dezaten.

Euskal Herrian eta inguruko estatuetan proiektu aitzindaria da, eta dagoeneko ikastetxeak go-raipamenak jaso ditu Ekoeskolen Nazioarteko I. Topaketetan, baita Espainiako Ingurumen eta Hezkuntza Ministerioko arduradunengandik ere. Ez da atzo hasitako bidea, hala ere: ikastetxeak 8 urte daramatza Ekoeskola proiektuan (Bandera Berdea jaso zuen 2000. urtean), eta herrian Tokiko Agenda 21eko partaide da.

Entzuten dena ahaztu egiten da; ikusten dena gogoan gelditzen da, eta bizitzen dena ikasi egiten da. Horixe da Samaniegon eman nahi izan duten jauzia: eskolan kanpainen bidez landu izan duten diskurtso hori, pixkanaka sistematizatzea eta eguneroko kontu bihurtzea. Hainbestera, non eraikin berria diseinatzerakoan ere irizpide nagusitzat sostengarritasuna hartu duten, euren filosofia eraikuntzan ere isla dadin. Proiektua eskolako Ingurumen Batzordeak kudeatu du, Eraikin Berriaren Azpibatzordea sortuz. Bertako partaide izan dira ikastetxeko zenbait irakasle, zuzendaria, ikasketa burua, gurasoak (tartean biologoak ere bai) eta ikasleak.

Beste eredurik ez, eta proiektu autodidakta

Planoen aurrean jarri zirenean, orduan komerkiak: inork ez zien ez eredurik, ez bultzadarik ematen. Beste eskola bioklimatikorik ez omen da eza gutzen inguruotan. Bioeraikuntza arloko arkitektoarengana jo zuten, Silvia Ortizengana, eta sortzen zen arazo bakoitzari erantzuna bilatzen joan dira. Liburuak eta liburuak irakurri, ikastetxetara jo... "Beste karrera bat ikasi dugul!", dio Ingurumen Batzordeko arduradunak. Harrigarria da ikerketa mailan hain aurreratuta egon, berrikuntzak ere frogatuta izan (energia alternatiboetan, material ez kutsagarrietan), eta horiek denak eraikin batean txertatzeak zer gain esfortzu eskatzen duen; eta hori, herri mailako eraikina izanda (ez etxe partikular bat).

**Haurrek txikitatik ja-  
kingo dute zer den erai-  
kin bioklimatiko bat:  
energia alternatibo ba-  
koitzeko eredu bat izan-  
go dute, ukitu egingo  
dutena, eta zuzenean  
ikusi nola funtzionatzen  
duten.**

### **Garestiagoa? Epe luzera, ez**

Eraikin bioklimatikoak, hasiera batean, bestelakoak baino zertxobait garestiagoa izango da (diferentzia ez omen da izugarria). Baina epe luzera, errentagarritasun ekonomiko bat bada, energian aurrezten baita. Hori zenbaterainokoa den jakiteko, energia kontsumoaren jarraipena egingo dute, bestelako eraikinekin konparatzeko. Horrek atea zabaltzea espero dute, datozen eskolak planteamendu bioklimatikoetan oinarri daitezen.



Kasu honetan arkitektoak ideia klabe bat izan zuen, proiektua merkatzen zuena: teilaturik ez izatea (kostu handia duen zatia), eta horren ordez sabai laua jartzea, hala, euri ura zisternarako eta baratza ureztatzeko aprobetxatzeko. Teilatuan aurreztu duten hori, beraz, bestelako materialetan inbertitu ahal izan dute.

### **Erabilera didaktikoa**

Haurrek txikitatik biziko dute zer den eraikin bioklimatiko bat: energia alternatibo bakoitzeko eredu bat izango dute, ukitu egingo dutena, eta zuzenean ikusi nola funtzionatzen duten. Baina erabilera didaktiko hori lortzeko ere, eraikina propio diseinatu behar

izan dute. Urezko estalkian oinezko pasabide bat egongo da bertako ezaugarriak aztertu ahal izateko (plaka fotoboltaikoak, biotopoa, euri uren aprobetxamendua); zenbait unitate esperimental ere izango dira (adibidez: bi motatako iturriak, kontsumo neurtukoak eta arruntak, zabaltzean bien arteko alde ikusteko...) eta horma irudi interaktiboak ere bai. Bestetik, 8 urteotan egin dituzten proiektuak ere (ura, zaborra edota garraioaren inguruan eginak, kasu) eraikin berrian islatzea nahi dute. Didaktika mailan IHOBEn, CEIDAn eta ZULOAGA TXIKI ingurumen eskola eta erakundeekin ari dira lanean. Eraikina edonork bisitatu ahal izango du. •

## **Eraikinaren ezaugarriak**

\* CADEM erakundearen ziurtagiria izango du: isolamendu termikoa, hertsidura eta gune kontzepzioa, energia aurreztuz.

\* Hegoaldera, eguzki fatxada. Energia hartzeko sistemak: kristalezko galeria, trombe hormak, panel termikoak (ura berotzeko), panel fotoboltaikoak (energia elektrikoa sortzeko), haize errota eta argi tximinia.

\* Ura aurreztuko da. Eraikinaren estalkia "ur bizikoa" da: euri ura bildu eta berrerabiliko da komunetan zein baratza ureztatzeko. Deskarga bikoitzeko zisternak. Iturriak, denbora neurtuko txorrota dutenak.

\* Instalazioak: gas naturala (errendimendu altuko galdara). Berokuntza lurzorutik, tenperatura baxuan. Kontsumo gutxiko lanparak. Kontsumo gutxiko eko-igogailua.

\* Materialetan PVC eta osagai toxikoak dituztenak baztertu dira. Linoleum zoladurak erabili dira, naturalak, ez-toxikoak eta bakterio kontrakoak. Ur pinturak, kolore estimulagarrietakoak.

\* Eraikina eta bere ingurua uztartuko dira. Jatorrizko biotopoa berreskuratu edo hobetuko da. Baratze didaktikoa. Ezinduentzat arrapalak.

\* Sukalde propioa izango du eta bertan sortuko diren hondakinak ere kudeatuko dira.

\* Funtzio didaktikoa ere izango du: horma irudi interaktiboak, informatiboak eta unitate esperimentalak.

## Cesar Jara: "Irakasleek ez dakite ezer bigarren hizkuntza bat irakasteko metodologiaz"

Hizkuntza gutxituak. Desager-tzeko arriskua. Normalizazioa. El-karri lotuta doazen hitzak eta egoe-rak dira, eta askotan beste bat gehi-tzen zaie: hezkuntza. Eskoletan hizkuntza horien aldeko lana egin litekeela uste baita.

Gauza bera pentsatzen dute ki-txuek ere. Horregatik, Perun, gaz-telaniaren presentzia ikaragarria den herrialde horretan, hezkuntza elebidunaren alde lanean ari dira, eta horietako bat da Cesar Jara ira-kaslea. Gaztelania eta Literaturako irakasle izandako hau Centro Andino de Educación y Promoción Jose M<sup>a</sup> Árguedas (CADEP) elkarteko kide da eta irakasleak prestatzen dihardu, irakaskuntza elebakarretik elebidunera igaro daitezen.

Esperientzia pertsonalak era-man du lan honetan sinestera. Ama hizkuntza kitxua izan arren, 6 urte-rekin gaztelaniatu zen, eta 8-9 ur-terekin hirira joan zenean erabat murgildu zen gaztelanian. Oso pro-



zesu gogorra izan zela dio, eskola-ko esperientzia ere bai. Lehen Hez-kuntzako 4. mailara arte ez zuen irakurtzen ikasi. Esperientzia ho-rrek asko lagundu dio haur kitxuen lekuan jartzen eta ulertzen. Gaur egun gaztelania da haren hizkuntza nagusia: gaztelaniaz pentsatzen du, amets egin, idatzi... Baina era berean, kitxua berreskuratu du. Re-reflect-ekintza metodologian lan egi-teak kitxua eta gaztelania orekatze-ra eramandu.

Zerainen eman zigun kitxuaren eta reflect-ekintzaren berri. Han, Elhuyar Aholkularitzak antolaturik, CIRAC sarearen Nazioarteko V. To-paketan parte hartu baitzuen Cesar Jarak.

### Zein da kitxua hiztunen kopurua Perun?

1993ko eroldaren arabera, Peruk 23 milioi biztanle zituen, eta horietatik 3,5 milioi ziren hiztun kitxuak. Horieta-tik erdiak elebakarrak ziren.

Perun, gaztelaniaz gain, 43 hizkun-tza indigena dauzkagu. Peruz gain, beste bost herrialdetan ere erabiltzen da kitxua: Kolonbian, Bolivian, Argen-tina iparraldean, Txileko eskualde ba-tean eta Brasilen ere bai azkenaldian.

53 dialekto ditu kitxua hizkuntzak, eta horrek zaildu egiten du normalkun-tza lana.

### Nolakoa da hiztunen egoera une honetan?

Limara joaten diren 10 hiztun ki-txuatik 9k hizkuntza galdu egiten dute eta gaztelania asimilatu. Nekazaritza-guneetatik eskualdeko hirietara (Cuz-co, adibidez) joaten diren hamarretik lauk galtzen dute. Asimilazio prozesua ikaragarria da, sozialki oso indartsua. Elebidunak diren eta hirian bizi diren pertsonen seme-alabek ez dute kitxua ikasten. Nekazaritzaguneetan geldit-zen ari da, hor mugatuta. Herri txikie-tan kitxua entzuten da, baina herri han-diagoetan eta hirietan gaztelania entzu-ten da bazter guztietan. Kezkagarria da. Hizkuntzen ordezkapen indizeak az-tertuz gero, oso indartsua, izugarria da. Adituek diotenez, 70 urtean kitxua de-sagertu egingo da, asimilazio prozesu horrekin jarraitzen badugu.



Gainera, kitxuari eusten zaion nekazaritzaguneko herritarrak indigena kitxuak, indiarrak, elebakarrak, analfabetoak, pobreak, atzeratuak... dira. Modu batera edo bestera, hizkuntzari eusten diotenak dira, eta gero eta txikiagoa da talde hori.

Perun gaztelaniak prestigio sozial handia du, tradizio literario handia, eta edozein lekutan aurki daiteke bibliografia. Kitxua, aldiz, erabat diskriminatuta dago, indiarrena da, analfabetoena, pobreena... Horrek etsipena sortzen du, eta guraso askok seme-alabek gaztelania ikastea nahi dute.

### **Horretaz jabetuta, zer pauso eman dituzue hizkuntza berreskuratzeko?**

Guk Perun hiru arlo garatu ditugu hizkuntzari eusteko. Hasteko, kulturala. Kitxuari eutsi behar zitzaiola esaten genuen, gure tradizioaren zati bat delako. Bigarrenik, alderdi kulturala eta linguistikoa, biak, lantzeraz pasatu ginen. Eta hirugarrenik alderdi pedagogikoa. Kitxua eskolan sartu behar da, irakatsi egin behar da.

Tamalez, hiru arlo horietan gelditu garela uste dut, eta ez dugula aurrera egin beste eremuetan.

### **Zer eremutara zabaltzea falta zaizuela uste duzu?**

Eremu sozialera, politikora eta ekonomikora. Euskal Herriak eta Kataluniak eremu sozialean sartzea lortu dute, herrien eta erakundeen parte-hartzea erdietsi dute. Eremu politikoa ere erabiltzen da. Alde batetik, erabiltzaileen ideologiaren arabera aukera indibiduala eta pertsonala da, eta bestetik, herritar gisa egiten den aukera kolektiboa. Aldi berean, politikoen hautua ere bada, aukera hori defenda dezakete eta horrek eragina du.

Falta zaigun hirugarren eremua ekonomikoa da, garrantzitsua. Zuek ekonomia eta hizkuntza integratzea lortu duzue, eta guk ez. Hau da, kitxua batek nola hitz egingo du kitxuaz, nola irakurriko edo idatziko kitxuaz, horrek ez badio eguneroko ogia irabazteko modurik ematen? Zuek, ordea, euskara alderdi ekonomikoan integratzea lortu duzue, eta horrek hizkuntza indartu egiten du.

Alderdi akademikora eramateak ere garrantzia du, hots, unibertsitatera eramateak, zientzia eta teknologia hizkuntza horretan garatzeak. Horrek bultzada ematen dio hizkuntza gutxituari. Katalanak, euskarak, flandeserak... Euro-

**Kitxua batek nola hitz egingo du kitxuaz, nola irakurriko edo idatziko du kitxuaz, horrek ez badio eguneroko ogia irabazteko modurik ematen? Hizkuntza ekonomian integratzea funtsezkoa da, horrek hizkuntza indartu egiten baitu.**

pako hizkuntza gutxituek ekonomikoki kokatzea lortu dute, eta Hego Amerikakoek eta Erdialdeko Amerikakoek ez. Hizkuntza horien hiztunek gaur egun botere ekonomiko bat badute, eta horrek hizkuntzaren jasangarritasuna bermatzen die. Adibidez, espainiar estatuan galizierarekin ez da gertatzen horrelakorik, ekonomikoki ahula delako.

**Kitxua eskolan sartzea aipatu duzu. Hezkuntza elebiduna ezarri egin da hori Perun. Nolako izan da ezarpena?**



Oraindik ere oso mugatua da. Nekazaritza inguruko eskola batzuetan soilik ezarri da, eta Lehen Hezkuntzan baino ez, hots, 6-12 urte bitartean. Bigarren Hezkuntza eta goi mailako ikasketak gaztelania hutsez egiten dira.

Gobernuak 1995ean hizkuntzari eusteko irakaskuntza elebiduna, orekatua eta gehigarria ezarri zuen. Gehigarriak esan nahi du ama hizkuntzari beste bat gehitzea, kasu honetan gaztelania. Orekatuak esan nahi du bietan maila orekatua lortu behar dela, bai ahazkoan eta bai idatzian. Eusteak esan nahi du arriskuan dagoen hizkuntzari eustea, alegia, desagertzeko prozesua gelditzen saiatzea.

Irakaskuntza elebiduna ezartzeko plan bat egin zuen gobernuak: Plan Nacional de Capacitación Docente en Educación Bilingüe Intercultural.

Dena dela, gobernuak ez du diru asko inbertitzen. Irakaskuntza elebiduna ez da leku guztietara iritsi. Zonalde kitxua elebatar asko daude, eta gaztelaniaz ikasten dute. Gaztelaniazteko prozesu bat dago. Ikasleek ezin dute aukeratu elebiduna edo elebatarra nahi duten. Eskola gaztelaniazteko instituzio bihurtzen da testuinguru elebatar kitxuan.

### **Nola funtzionatzen du irakasleak prestatzeko plan horrek?**

Perun dauden 300.000 irakasleetatik 5.000 irakasle prestatzen dira urtean hezkuntza elebidunean jarduteko. Irakasleen ia erdiak herri nekazarietan egiten du lan, eta hor hezkuntza elebidunaren eskaera eta beharra dago.

Hezkuntza Ministerioak erabakitzen du eskualde bakoitzean zenbat irakasle prestatu behar diren eta hainbat erakunderen esku uzten du lan hori; tartean, gurea. Erakunde horiek behar handiena duten eskolak aukeratzeko dituzte eta hango irakasleak prestatzeko dituzte. Agian zortzi eskolak behar dute laguntza, baina hirutara soilik iristen da.

Irakasleei urtebeteko prestakuntza ematen zaie, eta hurrengo urteetan jarraipena ematen saiatzen gara, batez

ere interesa agertu duten irakasleekin. Izan ere, denak ez dira gogoz aritzen. Asko ez dira bertakoak, hirietatik joandakoak baizik, ez dakite kitxuaz hitz egiten, eta elebatar hispanoentzako hezkuntza formazioarekin datoz. Hau da, ez dakite ezer bigarren hizkuntza bat irakasteko edo ikasteko metodologiarekin, ez dakite kitxuaz eta ez dute hitz egiten, are gutxiago dakite kitxuaren gramatika... Eta horietako asko, nahiz eta teoriarik irakaskuntza elebiduna eman behar, gaztelania hutsez aritzen dira.

### **Eta ez al ditu inork kontrolatzen? Ez al da jarraipenik egiten?**

Ez. Nik, adibidez, ezin nituen nire 30 irakasleak bisitatu egunero, ezinezkoa da.

Nik 30 irakasle eduki izan ditut prestakuntzan, 13-15 eskolatan dabilzatenak. Urte osoan egiten nuen lana berarekin, eskolak bisitatu, eta hilean behin elkartzeko ginen. 30 irakasle horietatik bospasei izaten ziren konprometituak, eta gainerakoak egon behar zutelako zeuden, ez interesagatik.

Gainera, nahiz eta prestakuntza jaso, ez dute formazio eta segurtasun nahikorik lortzen metodologia hori aplikatzeko. Eta kasu batzuetan, nahiz eta prestatu eta metodologia ulertzea iritsi, hizkuntzarekiko duten jarrera ez da ona izaten. "Zergatik irakatsi kitxua,

**Irakaskuntza elebiduna oraindik oso mugatua da. Nekazaritza inguruko eskola batzuetan soilik ezarri da, eta Lehen Hezkuntzan baino ez, hots, 6-12 urte bitartean. Bigarren Hezkuntza eta goi mailako ikasketak gaztelania hutsez egiten dira.**

atzeratutako hizkuntza baldin bada?" pentsatzen dute.

Lehen esan bezala, hiritik datozen irakasleak dira. Batzuk elebidunak dira, kitxua badakite, baina beti hirian bizi izan direnez, gaztelania jakiteak ate gehiago irekitzen dituela uste dute. Jatorriz kitxuak diren irakasleak ere badaude, eta batzuk gaztelaniara asimilatu dira. Agian beren larruan bizi izan dute diskriminazioa indigena izateagatik, abizen indigena edukitzeagatik, guanako izena edukitzeagatik, "Puma", "Llama"... abizen indigenak edukitzeagatik... Perun dagoen desberdintasun sozialaren markak dira horiek, ezaugarri fisioantikoen gain. Diskri-



minazio handia eta oso zuzena dago. Ondorioz, kitxua gehienak talde diskriminatu edo baztertu horretatik ateratzen saiatzen dira, gaztelania ikasiz.

Edonola ere, jatorri kitxua duten irakasleek onarpen eta ulermen hobea dute kitxuan. Ama hizkuntza gaztelania dutenak, berriz, fidagaitzagoak dira.

### **Bistan denez, sozialki gaztelaniaren presioa itzela da. Egoera horretan, irakaskuntza elebidunaren aldeko ala kontrako jarrerak dira nagusia?**

Guk egiaztatu dugu gurasoak ez daudela kitxuaz irakastearen aurka, baldin eta frogatzen baldin bazaie kitxuan ikasiz haurrek gehiago parte hartzen dutela, gehiago sozializatzen direla, gehiago produzitzen dutela... Baina hori ikusi egin behar dute. Bestela, nahiago dute gaztelania ikastea. Guraso asko zapuztu egin ziren eskolan, eta are gehiago hirira joandakoan gaztelania ez zekitelako. Gaizki pasatu zuten, integratu nahian. Horregatik, ez dute nahi seme-alabek gauza bera sufritzerik, eta gaztelania ikas dezaten nahi dute. Guk erakutsi behar dieguna zera da: kitxuan, ama hizkuntzan ikasteak gero abantailak ematen dituela gaztelania ikasteko ere.

### **Eta hori egiaztatzeko moduan al zaudete?**

Bai. Askotan joan gara gurasoekin hitz egitera eta eskolara iritsi berria den 5-6 urteko haur batek bere ama hizkuntzan irakur eta idatz dezakeela erakutsi diegu. Hori ikusitakoan pozik gelditzen dira. Gurasoek abesten dituzten kanten hitzak idatz ditzaketela ikusitakoan, esate baterako. Pozik gelditzen dira, gaztelaniaz ikastea ez dutelako horrelakorik egiten, irakurketa mekanikoa baizik.

Edonola ere, irakasleen konpromisoaren baitan dago hori dena.

### **Gaztelania hutsean ikasteari zer traba ikusten dizkiozu?**

Haurrek kitxuaz hitz egiten dute, eta irakasleek gaztelaniaz. Beraz, ez diete ulertzen irakasleei. Ondorioz,

frustratuta sentitzen dira eskolako jomugetan. Irakasleek ikasleei botatzen diete errua astakirtenak direla esanez, ez dutela ikasten, ikasitakoa ahaztu egiten zaiela... Hor arazo handia dago irakasleekin.

### **1995ean hasi zen irakaskuntza elebiduna. Urte hauetako lanaren ondoren, nola ikusten duzu egoera?**

Urte hauetan guztietan hizkuntza gutxitu baten alde aritu naiz lanean, eta hezkuntza elebidunaren beste porrot batean murgiltzen ari garela iruditzen zait. Irakurketa-idazketa ama hizkuntzan hasten da, eta gero, urteak pasa ahala, denbora gehiago ematen zaio gaztelaniari. 12 urte dituztenean, sei urteren ondoren, hizkuntza bakoitzari denboraren erdia eskaini beharko litzaioke. Baina hori teoria hutsa da. Praktikan irakasleek kontrakoa egiten dute. Kitxua irakasten dutela justifikatzeko adina egiten dute, hots, gutxienekoa, eta gainerakoa gaztelaniaz.

### **Zein dira dituzuen arazo nagusiak?**

Sistemak ez du bermatzen irakaskuntza elebiduna. Komunitateak eta administrazioak ez dute kontrolatzen. Benetan etsigarria da aurrera egin nahi dugunontzat.

Haurren jarraipenik ez da egin. Hots, ez da neurtu zer maila duten hizkuntza bietan 6 urterekin eta 12rekin.

Ez dago metodologia eraginkorrik gaztelania bigarren hizkuntza moduan irakasteko. Gaztelaniaz lan egiten duten irakasleek pentsatzen dute haurrak gaztelaniar elebakarrak direla, eta hiztun hispano bati bezala irakasten diote. Ministerioak proposamen batzuk egin ditu, baina gauza solteak dira: jokoak...

Irakasleak ere irakaskuntza zurrun eta arautuetara ohituta daude, araurik gabe galdu egiten dira eta betiko metodologia tradizionala erabiltzen dute. Gainera, nekazaritzaguneetako irakasleak gaizki ikusiak daude, soldata txarra dute... Jatorriz kitxuak diren irakasle askok gaztelania ez dute ongi menperatzen, eta beraz, irakatsi ere ez.



### **Zer egingo zenuke zuk egoera horri buelta emateko?**

Ni hizkuntza maioritaria kenduz hasiko nintzateke, denbora batez behintzat. Nik uste dut kalte handiagoa egiten diogula haurri gaztelania erakutsiz kitxua erakutsiz baino. Gaztelania kalean ikas dezakete.

### **Metodologiari dagokionez, reflect-ekintza hezkuntzan aplikatu daitekeela uste al duzu?**

Bai, noski. Partaidetza bultzatzen duen edozein metodo erabil daiteke eskolan. Reflect-ekintzak, modu batera edo bestera, posizio bat hartzen eta nortasuna bilatzen eta baieztatzen laguntzen dio norbanakoari.

Reflect-ekintzaren muina taldeki-deen partaidetza da, norberak bere barrura eta kanpora begiratzea pertsona, taldekide, gizarteko kide den neurrian. Prozesu psikologikoa, logikoa eta egiazkoa da. Niri nortasuna baieztatzen eta kitxua berreskuratzen lagundu dit, galdua bainuen. Eta orain harro sentitzen naiz. Besteak ulertzen eta besteen beharrak ikusten lagundu dit, bestekin gehiago identifikatzen eta erantzunak aurkitzen.

Hori dena eskolan baliagarria da eta parte-hartzaileagoak izaten, sozialagoak izaten eta abar laguntzen du. Reflect-ekintzak betiko irakaskuntza bideratzailetik ateratzeko eta arazoak denon artean aztertzei aukera ematen du. Freireren ideietatik sortutako metodologia da, metodologia parte-hartzaile berritua, nolabait esateko. •

# ekarpenak

## Gazteek entzuten duten musika hezkidetzaren ikuspuntutik aztertzekeo lan proposamena



**Yolanda TRABUDUA**

BIGARREN HEZKUNTZAKO GIZARTE-HEZKUNTZA  
AHOLKULARIA



“Berbekin esan ezin duguna eta isilean garatu ezin dena musikaren bitartez adierazten dugu.”

**Victor Hugo**

Nerabezaroan musikarako joes-  
ra handia izaten da. CDak entzutea  
edota zuzeneko kontzertuetara  
joatea euren ohiko denbora-pasa  
da. Gazteen zaletasun hori izan da  
nire abiapuntua. Helburua, bikoi-  
tza: batetik, gelara eramatea ikas-  
leek adin honetan maite dituzten  
doinu eta erritmoak; bestetik, errit-  
mo horiek transmititzen dituzten  
mezuak aztertzea.

Nik neuk ez nuen oso ondo ezagu-  
tzen ikasleek gaur egun entzuten du-  
ten musika; beraz, haiengana jo nuen  
informazio bila. Poz handiz eta infor-  
mazio zabala emanez erantzun zioten  
nire eskaerari. Lan hau burutzeko,  
erritmoez aparte, abestien gaiak ere  
interesatzen zitzaizkidan, eta hain zu-  
zen ere maitasunaren gaia: gizon eta  
emakume arteko harreman afektiboak  
edota emakumea modu batera zein  
bestera islatzen zuten abestiak bilatzen  
nituen. Musikarien artean emakumeak  
zein gizonak egon zitezen nahi nuen,  
une batean konparaketa lana egiteko.

Ikasleen laguntzaz aukeratutako  
abestiak hurrengo taldeenak izan zi-  
ren: El Canto Del Loco, Ken Zazpi,  
Berri Txarrak, Maria Isabel, Rossana,  
Betagarri, Alaitz eta Maider, Gatibu eta  
La Oreja de Van Gogh.

Abestiak aukeratzekoan, hel-

burua maitasun gaiaren tratamendu  
zabala biltzea izan da. Adibidez, El  
Canto Del Loco taldeak “El Canto Del  
Loco” abestian eta Gatibuk “musturrek  
sartunde” abestian sexuaren muga-  
gabeko pasioari kantatzen diote. Ken  
Zazpik “Iluntzean” eta La Oreja De Van  
Goghek “Rosas” kantuetan emakume-  
ari amodio galduak dakartzkion tristura  
eta aurrera egin ezina abesten dute.  
“Ilargia”-n Ken Zazpik amorrua adie-  
razten dio lortu ezineko bikoteari. Ros-  
sana “Para Morir de Amor Siempre  
Queda Mañana”-n maitasunari azalke-  
riaz, arinkeriaz hurbiltzen zaio. Alaitz  
eta Maiderrek “Ez Dizut Esango”-n  
maiteminduta egotearen sentimen-  
duaz jarduten dute... Modu honetan,  
bikote harremanak hainbat eratan bizi  
eta senti daitezkeela ikusi dugu. Gela-  
ko lana egoera bakoitzak zer aban-  
taila/desabantaila, balio eta abar di-

tuen aztertzea izango litzateke.

Ez da nire helburua artikulu honetan adibide hauek dakartzaten mezuak baloratzea, heziketarako eta, kasu honetan hezkidetzarako, kantekek duten indarra eta erabilgarritasuna azpimarratzea baino. Gure gazteek abestiak behin eta berriro entzuten dituzte, guk egiten genuen bezala, buruz ikasi arte. Kanten hitzak gazteen buruetan daude finkaturik, askotan eskolako ikasgaietan ikasitakoa baino sendoago. Abestien hitzak buruan dituzte, bai, baina nire zalantza da hitz horiek elkaturik duten mezuaz jabetzen direnentz.

Hemen dituzue abestien azterketarako lagungarri izan daitezkeen txantilo bi. Doinua aztertzeko bata, hitzak aztertzekoak bestea. Biak bereizita ikustea interesgarria da, batzuetan musikak sentimendu bat adierazten baitu eta hitzak beste bat. CDak lortzeko ikasleengana jo, eta hitzak, berri, Internetetik erraz jaso daitezke.

## Abestiak aztertzen: MUSIKA

1. Zein da abestiaren tonua? (tristeia, alaia, haserrealdikoa, mendekaria, hotza, beroa, lizuna, lasaia...).....
2. Zelan sentitzen zara doinua entzuterakoan?.....
3. Zer egiteko gogoia ematen dizu?.....
4. Zer inspiratzen dizu?.....
5. Ondorioa. Eman zure balorazioa abestiaren esanahiari buruz. Azter ezazu:
  - Nork kantatzen du/te, gizona/ek ala emakumezkoak/ek? .....
  - Gizonek eta emakumeek berdin antzeko doinuak erabiltzen al dituzte? .....
  - Zerbait aldatuko al zenuke?.....

## Abestiak aztertzen: HITZAK

1. Gaia: (amodio galdua, bakardadea, pasioa, maitasun zintzoa, itxaropenik gabeko maitasuna, sedukzioa, lilura, zoramena, xarma, limurtzea, benetako maitasuna...).....
2. Abestiaren edukiaren laburpena.....
3. Abestiaren egitura (zenbat bertso dituen, errepikak, hasiera berdineko esaldiak...).....
4. Ondorioa. Eman zure balorazioa abestiaren esanahiari buruz. Azter ezazu:
  - Emakumearen rola.....
  - Gizonezkoaren rola.....
  - Nork kantatzen du/te gizona/ek ala emakumezko/ek?.....
  - Gizonek eta emakumeek gauza berdinei kantatzen al diete?.....
  - Zerbait aldatuko al zenuke?.....
  - Abestian, zerbaitek emakume edo gizona irudia kaltetzen al du? Eta bikote harremana era egokian agertzen al da? .....

## www.semealabok.net

# Gurasoentzako leiho berri bat

Gaur egun, teknologia berriei esker, harremanetarako bide berriak zabaldu dira. Eskolari eta familiari ere iritsi zaie aukera hori, eta batzuk baliatzen ere hasi dira. [www.semealabok.net](http://www.semealabok.net) Internet bidezko kontsulta zerbitzua da horren adibide.

Bizkaiko Ikastolen Elkarteko egitasmo berri bat da [semealabok.net](http://www.semealabok.net) eta gurasoei eta hezkuntzako profesionali laguntza emateko sortu da. Gurasoek seme-alabekin nahiz irakasleek ikasleekin izaten ditugun harremanak errazteko baliabide praktikoak eskaintzea du xede, horrek neska-mutilen jokatibideak hobeto ulertzen lagunduko duelakoan.

Web orriak artikulua, aholkuak eta kontsultetarako atalak ditu. Artikuluak bi modutara antolatuta daude: adinka (0-6, 6-12 eta 12-16) eta gaika. Gurasoen kezka pizten duten gaiei buruzko artikulua dira. Esate baterako: gaueko ikaraldiak eta amets gaiztoak, kasketekin zer egin, lehenbiziko eskola egunak, haur berriaren etorrera, zer egin hurrek ez dutenean ondo jaten... Zenbait kasutan, gaiekin batera liburu zerrenda bat agertzen da.

Aholkuen atalean errezeta modukoak eskaintzen dira, horiek ere ohiko kezken ingurukoak.

Kontsultaren atalari dagokionez, gurasoek edota hezitzaileek zer kezka dituzten idatz dezakete, eta gero erantzuna jasotzen dute.



Egitasmoaren bultzatzaileek diotenez, "modu batera edo bestera, 0-16 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoen zalantzak argitzen saiatuko gara bai baldere erantzunez eta bai guk sortutako artikulua kontsultatzeko aukera eskainiz".

Informazio gehiago ere gehitzen da: Beste web gune batzuen zerrenda, premia berezietan lotutako elkarten zerrenda, argitaratutako artikulua interesgarriak eta abar.

Hori dena bideratzeko, psikologoz eta pedagogoz osatutako talde sendo bat dago: Ander Deuna ikastolako Ana Zabala, Eleizalde ikastolako Aintzane Egaña, RM Azkueko Bego Gordillo, Muskiz ikastolako Ixabel Lombardero eta BIEko Maria Galdeano eta Nerea Arregi. Denek ere orientazio arloan lanean dihardute eta kontsulta zerbitzua eskaintzeko prestatuta daudela esan daiteke.

### Gazteen txokoa

Bada beste web gune bat, [www.kontaizu.net](http://www.kontaizu.net), gazteei zuzendutakoa. Gazteek egindako eta haien prestatutako gunea da eta kontsulta zerbitzu honek lotura zuzena dauka horrekin. Hezitzaileak, gurasoak eta gazteak lotzeko eta elkarren berri jakiteko beste modu bat. •

**Internetez baliatuz,  
gurasoei eta  
hezkuntzako  
profesionalei seme-  
alaben heziketan  
laguntza emateko  
sortu den kontsulta  
zerbitzua da.**



[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)



Berriak . Materialen salmenta . Udako  
topaketak . Kontaktuak . Harpidetza .

# galdeidazue

10 urte inguruko haur talde bati, alegia, gorputzaren funtzionamendua oraindik nahiko ondo kontserbatzen dutenei, hitzaldi bat emateko eskatu dizute. Zer izan behar dugu kontuan hemendik 30 urtera gaur bezain sano egon daitezen?



Zaila da hitzaldi bakar batean gaur egungo kontsumo gizartearen eragin izugarriari aurre egiteko pautak ematea. Edozer gauzaren gainetik, euren irabazi ekonomikoak handitu nahi dituzten enpresa multinazional botere-tsua baitaude. Esate baterako, medikamentuen ekoizleei jendea gaixotzea eta produktuak kontsumitzea interesatzen zaie.

Osasun agintariek "botikak arrazionalki erabiltzeko" diote Osasunaren kostuak asko igotzen direlako eta botikak beraiek sortutako gaixotasunak gero eta gehiago direlako. Mendikamentuei alternatibak bilatu asmoz sortu zen 1995ean Sumendi elkarte (osasunaren autogestioaren alde). *Norbera sendatu, botiken arriskurik gabe... eta patrikari minik egin gabe* liburuxka argitaratu zidaten eta hor gorputzak sendatzeko dituen ahalmenak erabiltzeko ideiak biltzen ditut, betiere botikak hartzen hasi aurretik. Eskolan irakats daitezken ideia xumeak dira. 2000. urtean Txalaparta argitaletxeak liburu bat argitaratu zidan, *Cuídate compa! Manual para la autogestión de la salud*, eta ber-



Eneko LANDABURU  
SENDAGILEA

tan liburuxkako ideiak sakonago agertzen dira.

Ikasleek kontuan eduki beharko luketen lehenengo gauza zera da: gizaki guztiek ez duela osasunaz gozatzeko zorterik. Batzuk jaiotzatik, istripu bategatik edo gaixotasun kroniko bategatik ez dute ahalmen guztiekin gozatzeko aukerarik. Batzuek ez dute ongi hitz egiten, ikusten, entzuten, beren kabuz mugitzeko aukerarik ez dute eta abar. Horietako edonork bitzta duina era-

mateko eskubidea du. Gutako edonork gal dezake orain daukagun ahalmenen bat.

Gauza horietaz kontziente izateko ariketa praktikoren bat egin daiteke ikasleekin. Adibidez, minutu batzuetan haurrak itsuak, gorrak, herrenak, besamotzak, elbarriak... balira bezala joka dezakete. Edo ezintasuna duten pertsonen talde bati deitu eta haietako batzuk euren zailtasunak eta eskubi-deak zein diren kontatzera gonbida daitezke.

## Gure gorputza: jakintsua, boteretsua eta laguna

Gure gorputzak duen jakituria azpimarratu beharko litzateke. Milaka milioi! urteren poderioz iritsi zaigu jakituria hori. Duela bi mila milioi urte inguru zenbait bakteriar elkartu egin ziren eta gaur egun gure ehunak osatzen dituzten zelulak asmatu zituzten. Zelula haiek, esperientziaren ondorioz, euren zat onena zer zenikasi zuten eta belaunaldiz belaunaldi transmititu zituzten. Gure gorputzak duen jakituria dela-eta, badaki zer den hoberena be-



# Gure gorputzak duen jakituria dela-eta, badaki zer den hoberena beretzat. Atsegina baldin bada gurekin, gu ere izan gaitezen arretatsuak eta arduratsuak harekin.

retzat. Kontserbazio Sena dei genie-zaioke horri.

Gure gorputzeko organu guztiak eraikitzeko gai izan zen jakituria hori; gure aitaren espermatozoideak ernaldutako zelula mikroskopiko batetik (gure amaren obulua) abiatuta. Jakinduria inkontziente hori funtzio eta erreakzio kimiko askoren aurrean adi egoteko gai da. Gure birikek oxigeno gehiago har dezaten ahalbidetzen du, eta gure bihotzak odola gorputzeko bazter guztietara ponpa dezan, gau eta egun, esna edo lo egon. Gutako bakoi-tzak berezia duen hatz-marka erretzen badugu, gorputzaren jakinduria gai da azal hori marrazki berberarekin erreproduzitzeko. Zauritzen baldin bagara, orbaindu egingo zaigu, eta hezur bat hausten badugu, soldatu egingo da.

Gure gorputza, jakintsua izateaz gain, boteretsua da. Hori argi ikus daiteke zerbait txarra jaten dugunean. Gorputzak indarkeriaz erreakzionatzen du oka eginez, beherakoarekin, eta batzuetan sukarrarekin, sustantzia txar horiek lehenbailehen kanporatzeko.

Eta jakintsua eta boteretsua izateaz gain, lagun ona dugu gorputza. Guregandik banaezina den lagun bakarra da. Gainerako lagunak, egoera bategatik edo besteagatik, guregandik banatu egiten dira. Gure gorputzak, ordea, gu-

retzat onena dena bilatzen du, eta hil arte lagunduko digu. Hura atsegina baldin bada gurekin, gu ere izan gaitezen arretatsuak eta arduratsuak harekin.

## Gaixotasunak badu zentzua

Ikasleei Batasunaren printzipioa azaltzen saiatuko nintzateke. Lehenaldia, oraina eta etorkizuna lotuta daude. Helduek jasaten dituzten egonezin batzuen kausa lehenaldian dago, haien bizitzen hasieran. Bizitza luzea, zabala eta sakona eduki nahi baldin badugu, oso garrantzitsua da gure gorputza orain zaintzen hastea, hazten ari garen une honetan. Garrantzitsua da oinarri sendoak eraikitzea gure gorputza indartsua izan dadin.

Gure gorputza batasun bat da. Atal guztiak elkarren artean komunikatuta daude. Beldurtuta baldin bazaude, hesteak eta maskuria indargetu egiten dira. Urdailari lan asko ematen baldin badiozu, muskuluak indarrak gabe gelditzen zaizkizu. Gaixorik zaudenean, energia guztia gauzarik garrantzitsue- nean kontzentratzen da: sendatzea. Horregatik, muskuluetan eta urdailean indarrak gabe gelditzen zara.

Nahiz eta Munduko Osasun Erakundeak esan osasuna “ongizate fisikoa, mentala eta soziala” dela, gaixotasuna ez da hain txarra. Min zorrotza sentitzen dugunean, gure gorputza kexatzen ari delako da; daramagun bizitza desegokia dela esan nahi du eta zerbait adierazi edo erakutsi nahi izaten digu. Azken finean, sendatze prozesuak dira. Gorputza oso nekatuta dagoenean eta organismoaren barruan sortzen diren edota kanpotik datozen sustantzia toxikoak kanporatzeko gai ez denean, gelditu egin behar du; muskuluei, buruari eta liseriketa aparatuari indarrak kendu eta garbiketan kontzentratu behar du: pixa kontzentratua, izerdi usaintsua, hatsa, behazun kolikoa, hainbat hantura (azaleko negalak, zorne jarioak, mukiak...), sukarra... Hainbat haurrek hazteko geldialdi bat behar dute, ohean egon eta garbiketa sakonak egin behar dituzte.

Jateko gogorik ez daukagunean

eta, are gehiago, janariak nazka ematen digutenean, gorputzaren jakinduriak zerbait esan nahi digu: une horretan nahiago duela energiak sendatzen gatastu eta dauzkagun erretserbatatik elikatu, horrek ahalegin gutxiago eskatzen baitio. Bai animaliek eta bai landareek, erretserbetatik elikatzekeo baliabideak dituzte. Harrituta gelditu nintzen dokumental batean honakoa ikusi nuenean: desertuko katu mota bat (suri-kata) bizirik atera zen suge pozointsu batek hozka egin ondoren hiru egun erretserbetatik elikatuz eta erabat geldirik egon eta gero. Maiztasun batekin jan behar dira elikagaiak, baina bizitzako une batzuetan urdailean janaria sar-tzeari utzi egin behar zaio.

Osasuntsu egoteko, 16 orduko aktibitatearen ondoren 8 orduko atsedena behar dugu, 8 ordu egon behar dugu ezer egin gabe. Loa beharrezkoa da gastatutako energiak errekuiperatzeko, mugitzen garenean sortzen ditugun sustantzia toxikoak botatzeko, matxurak konpontzeko, zentzuen bitartez buruan sartzen den informazio guztia ordenatzeko eta abar. Ohea tailer baten modukoa da: gorputzak barruko mekanikoari aztertzen, garbitzen, konpontzen eta makineria prest jartzen uz-

**Gaixotasuna ez da hain txarra. Min zorrotza sentitzen dugunean, gure gorputza kexatzen ari delako da; daramagun bizitza desegokia dela esan nahi digu eta zerbait adierazi edo erakutsi nahi izaten digu.**

## Hainbat hurrek hazteko garaian geldialdi bat behar dute, ohean egon eta garbiketa sakonak egin behar dituzte.



ten dio. Pertsona bat gaixorik edo istripu bat izanda baldin badago, gorputzak erabateko atsedena eskatzen dio garrasika: etzanda egotea, isiltasunean, ilunpean eta abstinentzia. Bero egiten badu, freskotasunean jarri beharko da, edota urarekin freskatu, batez ere erre-dura kasuetan. Urak gorputzaren gehiegizko berotasuna ateratzen laguntzen du. Beroa 20 aldiz azkarrago bideratzen du. Hotz egiten badu, jantzi egin beharko da, batez ere gorputz-adarrak. Horrela muskuluen, buruaren, zentzumenen eta beroaren (odol beroko animaliak gara eta funtzionatzeko gorputza 37 gradutako tenperaturan mantendu behar dugu) lana aurrezten da, eta sendaketan eta biziraupenean kontzentratzen dira indar guztiak.

Atsedena bezain garrantzitsua da ariketa egitea. Ona da egunero zerbait egitea arnasestuta jarri eta berotu arte. Horrela, birrikakireki egiten dira eta oxigenoa hartzen dute. Bihotza ere mugitu egiten da eta odolak ongi ponpatzen du gorputzeko ixkina guztietara iritsiz. Gure gorputzak 600 muskulu baino gehiago ditu eta erabiltzen baldin baditugu indartu egiten dira. Erabiltzen ez baditugu, berriz, ahuldu egiten dira eta ez dituzte hainbat funtzioa betetzen. Adibidez, ornoei edo errain abdomina-

lei eustea. Ariketa erregulartasunez egiteak gehiegizko pisua edukitzea saihesten du, eta horixe da beste gaixotasun asko sortzen dituen kausetako bat.

### Elikaduraren aldaketa

Gizakiok, gainerako animalien gisa, senaz baliatu izan dugu behar gutxi, orain elar mila urte inguru, naturak ematen zizkigun produktuak eraldatzeari ekin genion: nekazaritzak landare basatiak eraldatu zituen, abeltzaintzak beste espezie batzuen esnea hartzea ahalbidetu zigun, eta sukaldeak elikagaiak eraldatu zituen tenperatura oso berotan edukiz (batez ere frijitzean eta laberatzean). Eraldatutako produktu horiekin gure senak ez du funtzionatzen. Zerraila bateko giltza eraldatzea bezala da. Irekitzeko ahalegintzen garen bakoitzean, bortxatu egingo dugu. Elikadura modernoa gure organismoa bortxatzen ari da. Osasun agintariak biztanleek fruta eta barazki gehiago kontsumi dezaten nahi dute (gutxienez egunean 150 gr. ko bost anoa) gaixotasun kronikoak gutxitzeko. Horrek lurrari kalterik egin gabe fruta eta barazki produkzioa igotzea dakar. Horregatik, 2006ko abendu arte Fruta eta Barazki Freskoen Kontsumorako Promozio Kanpaina egingo dute janari dendetan, ikastetxeetan eta beste lekuetan. Leloa honakoa izango da: "Egunean bost aldiz. Nahitaezkoa da". Ikonoak, aldiz, eskuko bost behatzak irudikatzen ditu.

Gizakion osasuna eta Lurraren osasuna batera doaz. Gizakiok animaliajatorriko elikagaien ordez fruta, barazki eta hazi oleaginoso gehiago jango bagenu, jende gehiagorentzako iritsiko litzateke jatekoa, hilgarrienak diren gaixotasunak gutxituko lirateke (minbizia eta kardiobaskularrak) eta gure planetako lurra aberastuko litzateke.

Buru osasunari buruz ere zerbait erakutsi beharko litzaieke 10 urteko gazte hauei, antidepresiboak, ansioliti-

koak, alkohola eta beste drogak kontsumitzen buka ez dezaten. Norbana-koak dituen bitartekoak erabiltzen erakutsi behar zaie bizitzan sortzen diren arazoei aurre egiteko. Egunero zaila den zerbait egitera bultzatu behar dira, prestatuta egon daitezten. Zailtasunei aurre egiteak ihes egiteak baino asetze maila altuagoa sortzen duela konturatu behar dute.

Gure atsekabeetatik askatzeko dauzkagun mekanismo naturalak ezagutarazi behar zaizkie: negarra, garrasika, dardara, aharrasua, barrea, haserrealdiak... Konfiantza nahikoa ematen digun norbaiten begirada behar dugu barruak hustutzeko. Ez da egia alkohola, tabakoa edo botikak behar ditugula urduri gaudenean lasaitzeko.

Sarritan inkomunikazioak sortzen du egonezina eta depresioa. Nahiko baldarrak gara komunikatzeko garaian, batez ere gatazkak sortzen direnean. Egokia litzateke eskolan komunikazioari buruzko ezagutzak irakastea eta horretan jardutea. Entrena daitezela hobeto adierazten besteek uler diezaien eta hobeto entzuten besteek uler diezaien.

Aipatu ditudan guztiak "izugarriko garrantzia" duten ezagutzen gaine-ko ideiak baino ez dira. Eta noski, hitzaldi bat baino gehiago eskaini beharko litzaieke ikastetxeetan. •

**Ohea tailer baten modukoa da: gorputzak barruko mekanikoari aztertzen, garbitzen, konpontzen eta makineria prest jartzen uzten dio.**

Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

azaroa

berriak

## Euskal curriculuma herriz herri darrai

Dagoeneko zenbait herri bisitatu ditu Euskal Herriak Bere Eskolak abian jarritako azken ekimenak, "Euskal curriculuma herriz herri" izenekoak, hain zuzen ere. Euskal curriculuma osatze aldera, artxibategi handi bat dabil herrietan barna herri bakoitzak bere ekarpena egin dezan.

Horrekin batera, euskal curriculumaren inguruko hausnarketa eta ekimenak egingo dira. Goizez ikastetxetan izango dira EHBeko arduradunak irakasleekin eta ikasleekin biltzeko. Arratsaldetan, aldiz, gurasoekin, herri eragileekin eta herri-tarrekin biltzeko aprobetxatuko dute.

Tafallan hasi zen ibilbidea urriaren 22an eta Durango amaituko da abenduaren 3an. Bitartean, honako herriak pasako ditu azaroan:

- Azaroak 2, Agurain
- Azaroak 3, Ordizia
- Azaroak 4, Aretxabaleta
- Azaroak 5, Bergara
- Azaroak 7, Azpeitia
- Azaroak 8, Leitza
- Azaroak 9, Lesaka
- Azaroak 10, Oiartzun
- Azaroak 11, Baiona
- Azaroak 12, Orereta
- Azaroak 14 Donostia
- Azaroak 15, Hernani
- Azaroak 16, Zarautz-Orio
- Azaroak 17, Eibar
- Azaroak 18 eta 19, Lea-Artibai
- Azaroak 21, Gernika
- Azaroak 22, Txorierra
- Azaroak 23, Getxo
- Azaroak 24, Sestao
- Azaroak 25, Leioa
- Azaroak 26, Bilbo
- Azaroak 28, Barakaldo
- Azaroak 29, Zalla
- Azaroak 30, Amurrio
- Abenduak 1, Laudio
- Abenduak 2, Galdakao
- Abenduak 3, Durango

# Gelako giroa aztergai Barakaldon

Barakaldoko XIX. Jardunaldi Pedagogikoen barruan, honako hitzaldiak izango dira azaroan.

## Azaroak 16

### Saio nagusia

Lasesarreko kiroldegian

9:30 Aurkezpena

10:00 Hitzaldia: *"Elkarbizitza ikasten. Ikasketarik egokiena"*, Elena Martin Ortega, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslea.

11:30 Atsedena

12:00 Hitzaldia: *"Ikastetxeko giroa, ikaskuntzaren gakoa. Ikastetxe bertako ikuspegia"*, Marivi López Ledesma, Barakaldoko Nuestra Señora del Rosario ikastetxeko zuzendari pedagogikoa.

13:30 Aurreko bi hitzaldiei buruzko galdera, ekarpen eta iruzkinak.

14:15 Amaiera

## Azaroak 23

### Mahai ingurua

15:00-17:00 Lasesarreko kiroldegian

Gaia: *Gelako giroa: atsegina?*

Mahaikideak:

**Komunikabideak:** Xabier Aierdi, EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea.

**Gurasoak:** M<sup>a</sup> Nieves Gonzalez, Gurutzeta BHIko Eskola Kontseiluko kidea.

**Irakasleak:** Juliana Perez, Barakaldoko Nicolas Larburu BHIko orientatzailea.

Moderatzailea: Kenar Martinez, Barakaldoko XIX. Jardunaldi Pedagogikoen koordinatzailea.

## Azaroak 30

### Komunikazioak

15:00-17:00 Lasesarreko kiroldegian

Esperientziak ikastetxeetan  
Gidaria: Loli Talaván, Barakaldoko Berritzeguneko aholkularia

1) *Segurtasun afektiboa gela barruan, Haur Hezkuntzako esperientzia zehatza.* Bilboko Txurdinaga LHI. Margaritza Miguel, Haur Hezkuntzako irakaslea.

2) *Lan kooperatiboa proiektu orokorraren barnean.* Barakaldoko Santa Teresa Bagaza LHI. Mari Carmen Rueda kontsultorea eta zuzendaria, Maria Luisa de la Cámara Lehen Hezkuntzako irakaslea eta Mari Jose Suarez, Haur Hezkuntzako irakaslea.

3) *Lagun-hurkoaren onespina, elkarbizitzaren oinarria.* Barakaldoko Antonio Rueda BHI. Mari Carmen Urquijo orientatzailea.

Saioak irakasleei eta Eskola Kontseiluetako kideei irekita daude eta dohainik dira. Hala ere guztiz ere, [www.gaztenet.com/barakaldo04](http://www.gaztenet.com/barakaldo04) webgunean matrikulatzea ezinbestekoa da.

### Informazio gehiagorako:

Tel.: 944 902 300

## Psikomotrizitate Praktikako VII. jardunaldiak Gasteizen azaroaren 18, 19 eta 20an

### Informazio gehiagorako:

Tel.: 943 769 033

## Sare 2005: "Egungo neskek, etorkizuneko emakumeak" jardunaldiak Donostian azaroaren 8 eta 9an

### Informazio gehiagorako:

[www.sare-emakunde.com](http://www.sare-emakunde.com)

Tel.: 943 428 111

# Telebista eta hezkuntza jardunaldiak

Abenduaren 3an  
Donostiako  
Miramar jauregian



## Goizeko saioa

9:30 Material banaketa.  
9:45 Topaketen hasiera.

10:00-11:10 **“Balioen aldaketaren aurrean familiak, eskolak eta gizarteak nola jokatu beharko lukete?”**

\* José María SETIÉN, *Donostiako gotzain ohia*.

11:10-12:20 **“Telebista: balioak eta gezurrak” (gaztelaniaz)**

\* Lolo RICO, *haur eta gazte programa askoren programatzailea eta gidoilaria*. RTVEn emandako “La bola de cristal” haur-gaztetxo-en programaren zuzendaria.

12:45-13:30 **“Gaztetxoak eta telebista. Ikerketa soziologikoa”**

\* Josi BASTERRETXE, *EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea. Kazetaritza Saila*.

Ikerketa honen helburu nagusia Euskal Herriko gaztetxoek (14-18 urte bitartekoek) duten alfabetizazio mediatikoa zehaztea izan da. Euskal Herri osoan ia 2.000 ikasleri egindako inkestaren ondorioak dira.

13:30-14:00 **“Kutxa katolikoa ala katolikoa”**

\* Fito RODRIGUEZ, *EHUko irakaslea*.

1- Ikus-entzule esnatua izateko iratzar-bideak (irudimena eta norberaren birsorkuntzarako gakoak).

2- Irudikapenaren arauetan alfabetatzea.

3- Irudia eta eskola: informazioa eta ebaluazioa.

## Arratsaldeko saioa

16:00-17:00 **“Haurrak eta telebista: eskolaren eta familiaren egitekoa”**

\* Antton ALFARO, *Lezoko herri eskolako irakaslea*.

17:00-18:00 **“Kameraren atzean: irudiak irakurtzeko esperientzia sortzailea” (gaztelaniaz)**

\* Isabel ALBA, *gidoilaria*. *Donostiako Larrotxene kultur etxean urteak daramatza haur eta gaztetxoei zinema ezagutzen laguntzen*.

18:00-19:00 **“MAHAL-INGURUA: hi, hasi adi begiak hezten!”**

\* Asier ALTUNA eta Telmo ESNAL, *telebista eta film gidogileak*. *“Aupa Etxebeste!” filmaren gidogileak eta zuzendaririk*.

\* Ane Muñoz, *gidoilaria eta laburmetraien egilea*.

Moderatzailea: Xabier PORTUGAL, *Pasaia-Lezo lizeoko irakaslea*.

Matrikula epea:  
azaroaren 25a arte.

Prezioak:  
50 euro.  
Harpidedunek eta langabetuek 25 euro.

Informazioa:  
HIK HASI. Errekalde hiribidea, 59 - Aguila 1.  
20018 DONOSTIA  
(Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 371 408

E-posta:  
hikhasi@hikhasi.com  
www.hikhasi.com

## UEUk Inguma datu-basearen azken berrikuntzak aurkeztu ditu

Inguma, Bizkaiko Foru Aldundia-  
ren laguntzaz, UEUk sortu eta garatuta-  
ko Euskal Komunitate Zientifikoaren  
datu-basea da. Bertan azken 35 urte-  
tan unibertsitate mailako zientzia eta ja-  
kintza alor bakoitzean euskaraz ekoitzi  
denari buruzko oinarritzko informazioa  
eskaintzen da. Azken berrikuntzak di-  
rela-eta, hemendik aurrera dokumen-  
tuen kontsulta zuzena egin ahal izango  
da eta material digitalizatuez baliatu ere  
bai.

Une honetan Inguma datu-basean  
UEUren produkzioarekin batera, uni-  
bertsitate mailako euskarazko zein er-  
darazko 99 aldizkariren euskarazko ar-  
tikuluak, 45 argitaletxeren euskarazko  
liburuak, zenbait unibertsitatearen eus-  
karazko eskaintza akademikoa eta  
hainbat erakunderen hitzaldiak zein  
ikastaroak daude. Horrez gain, artiku-  
luak, liburu aipamenak, hitzaurreak, li-  
buru atalak, edizio kritikoak, dokto-  
re go tesiak, ikerkuntza proiektuak, ika-  
staroak, irakasgaiak eta abar agertzen di-  
ra. Ezbairik gabe, euskal komunitate  
zientifiko-intelektualaren datu-base  
osatu eskaintzen du.



# Mintzapraktika egitasmoei buruzko jardunaldiak Gasteizen

**Lekua:** Durangoko Landako Elkartegia.  
**Eguna:** azaroak 10  
**Antolatzailea:** Topagunea Euskara Elkarteen Fe-  
derazioa, AEK eta IKA.  
**Matrikulatzeko epea:** azaroak 3  
**Prezioa:** 55 euro / 50 euro, Topagunea, AEK nahiz  
IKAko kideentzat.  
**Informazio gehiagorako:**  
94 475 16 18  
www.topagunea.org

## Egitaraua

09:30 Irekiera ekitaldia  
10:00 **Euskaldun berria: Hitzuna eta euskal komunitatea**, Iñaki Arruti, Lasarte-Oriako udal euskara teknikaria.  
10:45 Atsedena

11:15 **Euskaldun berrien erabilera programak esku-liburuaren aurkezpena**, Oskar Zapata, Topaguneko Mintzapraktika Saileko arduraduna.

11:30 **Mintzalaguna: Donostiako egitasmoaren hastapenak eta bila-kaera**, Aitziber Gurutzeaga, Donostiako Bagera Euskara Elkarteko teknikaria.

11:45 **Mintzalaguna programan sakontzen:**

\* 11:45 **"Programa abian jartzen"**: Ana Flamarique, Iruñeko Mintzakide egitasmoko teknikaria.

\* 12:00 **"Programa gauzatzen"**: Edorta Lopez, Muskizko Ostabe egitasmoko teknikaria.

\* 12:15 **"Programa kudeatzen"**: Idoia Illarramendi, Hernaniko Dobera Euskara Elkarteko teknikaria

\* 12:30 **Galdera txanda.**

12:45 **Mintzapraktikarako programak beharrezkoak al dira euskaldun-  
tze prozesua arrakastaz bukatu ahal  
izateko? (Mahai ingurua):** HABE;



Asier Amondo, AEK-ko Zuzendaritza-  
ko kidea; Iker Martinez de Lagos, To-  
pagunea Euskara Elkarteen Federazio-  
ko zuzendariondokoa.

13:30 **Eztabaida irekia.**

14:00 **Bazkaria:** Plateruena Kafe Antzokian.

15:30 **Erabilera programen beste-  
lako aplikazioak:**

\* **"Gabriel Aresti euskaltegiaren jarduera-taillerrak"**: Xabier Monasterio, Bilboko Zenbat Gara Euskara Elkarteko kidea.

\* **"Erabilera birtuala"**: Aitor Etxebarria, Santurtziko Udal Euskaltegiko irakaslea.

\* **"Kuadrilletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoa"**: Diego Egizabal, Kuadrillategi egitasmoko ko-  
ordinatzailea.

\* **"Gurasoei zuzendutako programa bereziak"**: Benito Fiz, Mahatserri-  
ko (Bilbo) Asapala Euskara Elkarteko kidea.

\* **"EHUko esperientzia"**: Arrate Atxa, EHUko kidea.

16:45 **"Voluntaris per la Llengua: Hitzkuntza bikoteak, hitzkuntza bat ikastea baino askoz gehiago"**

Dolors Solá i Noguera, Centre de Normalizació Lingüística d'Osonako zuzendaria.

17:30 **Galdera txanda.**

18:00 **Amaiera ekitaldia**

Film baten barruan zer dagoen  
ikusi nahi al duzu?

Hemen duzu proposamen didaktiko bat

SALGAI

**BEGIRADAREN HEZIKETA**  
Zinema aztertzen


**ILARGIAREN SEKRETUA**

**hikhasi**

DVDan ondorengo atal hauek lantzen dira:

- 1.- FILMA EGITEKO PROZESUA
- 2.- GIDOIA
- 3.- IRUDIA
- 4.- SOINUA
- 5.- EFEKTUAK
- 6.- DISEINUA
- 7.- MEZUAK ETA BALIOAK
- 8.- ZINEMAREN BILAKAERA

# argitalpenak



**Non nago?**  
Liesbet Slegers  
IBAIZABAL

Liburu hau 18 hilabetetik haurrera-ko txikitxoentzat da Marrazki handi eta koloretsutan, orrioro galdera bat egiten zaie haurrei, eta erantzuna orriak alde-rik alde zabalduz aurkitu beharko dute.

“Non nago” liburua Ibaizabal argi-taletxeko *Kepa* bildumako parte da. Bilduma bereko beste izenburuak, “Zertan ari naiz?” eta “Zer naiz?” dira •



**Mundu garaikidearen historia**  
Koldo Ortega eta Alizia Stürtze  
GAIK


XX. mendeko gertaera nagusiak azaltzen ditu liburuak: gerra handiak, iraultzak, krisiak, deskolonizazioak eta garapen-bideko herrialdeak, gerra hotza eta nazioarteko harremanak, AEBren nagusitasuna, Europar Batasunaren garapena, globalizazioa... XXI. mendea ulertzeko ezinbesteko tresna, beraz •



**Zazpi bider zazpi**  
Felipe Juaristi  
EREIN

“Fernando eta Sebastian trenbide-an daude, tunelari begira (...) Trenaren aurrean gehien eusten dionak irabaziko du azken froga hau (...). Sebastian kuadrilako liderra bihurtuko da, baina horretarako zazpi froga gainditu beharko ditu, eta ez nolana hikoak”.

Gazteentzako eleberririk klasiko bat da, abentura eta intrigaz betea •



**Tantak, 33. alea**  
EHU

Hezkuntza Aldizkariaren azken alean, artikuluok ditugu: “Curriculumaren ebaluazioa”; “Hezkuntza Ebaluazioaren Esparruak”; “Irakaskuntza unibertsitarioan erabiltzeko Webgune baten diseinua”; “Gure arteko haur eta gazte literatura” eta “Ikasbide esperimentziala: gorputz-sentsazioak hezitzaileen prestakuntza praktikorako bidean” •



**Aisia biziz, udazkeneko alea**  
URTXINTXA ESKOLA

Aldizkariak adierazpen plastikoa aztertzen du, sakonki: marrazkia haurraren garapenaren isla modura, kolore bakoitzak adierazten duen umorea, irudimena, arte terapia... Josemi Castro irakasleari zein Carmen Maganto Unibertsitateko Psikologia irakasleari egindako elkarrizketak ere biltzen ditu. Adierazpen plastikoaz esperientziak eta bibliografia ere ageri dira •



**Kixmi elurpean**  
Arrate Egaña  
ELKAR

Urtezahar-gaua: bere bizitza egin behar duela erabaki du Pellok, koadrilarekin biltzera atera aurretik. Ez daki ondo zer-nolako zoramena biziko duen gau horretan zehar, zenbateraino aldatuko diren -berak uste ez bezalabere bizimodua eta munduaren ikuspegia. Nerabearoa atzean utzi duen koadrila baten inguruko nobela da •



# ... goza nazazu gehiago

## Hezitzaileek asko egin dezakete, euskararen erabilera sustatzeko II



**Iñaki Eizmendi**  
Ttakun Kultur Elkartea

Ttakun Kultur Elkartek *Hezitzaileek asko egin dezakete* proiektua garatu du. Proiektuaren xede nagusia haur eta gazteekin eskola-orduz kanpoko jardueratan aritzen diren hezitzaileei euskararen erabilera sustatzeko tresnak eskura jartzea da.

Hik Hasi aldizkarian proiektuaren laburpen bat egitea gehiegizkoa izan daitekeenez, bi ideia aurkeztuko dira: aurreko zenbakian hezitzaileak taldean izan dezakeen kokapenaren inguruko ideia argitaratu zen, eta, honakotan, motibazioen inguruan arituko gara.

### Motibazioak

Erabilera eragin nahi dugun momentotik, gazteei beraien ohituretan aldaketa bat eskatzen diegu. Beraz, desoreka bat sortu nahi dugu taldearen ohituretan. Desoreka hori sortu ahal izateko, gazteek jarduerarekiko dituzten motibazioak eta jardueraren intentsitatea oso kontuan izan beharko ditugu. Jarduerarekiko motibazioak instrumentalak, komunikatiboak eta integrazioak izan daitezke, eta hiru motibazio horiek aztertuz jardueraren intentsitatea baloratu ahal izango da, motibazioen indarrak adierazten baitu jardueraren intentsitatea.

Erabilera aldetik gazteei eskatzen diegun ahalegina handia bada, hau da, ohituretan sortu nahi dugun desoreka handia bada, jardueraren intentsitateak handia izan beharko du, eta, behar den kasuetan, motibazioetan eraginez intentsitatea indartu beharko dugu.

Sortu nahi dugun desoreka horretarako intentsitateari dagokion baldintza betetzen ez bada, oso zaila izango da helburua lortzea. Hizkuntzarekin lotura zuzena ez duten faktoreak izan arren, hizkuntzazko helburuak landu ahal izateko oso ondo aztertu eta landu behar dira jarduerarekiko motibazioak eta jardueraren intentsitatea.

## ZER EGIN

Erreferente bidez baliatzea

Demagun, talde batean gazteek ez dutela euskaraz egiteko ohiturarik, baina hezitzaileari euskaraz erantzuten diotela. Euskarra gehiago erabiltzeko beraienez erakargarria den erreferente bat ekarriko dugu: kiro-lari ezagun bat, DJ bat... Erreferente horrek jardueran parte hartuko du gazteekin harremanetan egon dadin (tarte askotan zentro izan dadin) eta euskararen erabilera sustatu dezan elkarriketen bidez.

Erreferenteak guztia euskaraz egingo die gazteei. Gazteentzat erakargarria denez, pertsona horrekin komunikatzeko ahalegina egingo dute, eta, gainera, motibazio instrumentalean ere eragina izango du jarduera erakargarriagoa bihurtuko baitu. Tresna hau erabili ahal izateko, jardueraren intentsitatea ertaina izatea nahikoa da, gazteei ez baitaie erabilerari dagokionez ahalegin handiegia eskatzen.

# atzeko atetik



## Arantxa URRETABIZKAIA

IDAZLEA

Joan den mendeko erdialdean jaioa naiz, familia euskaldun eta langile batean (aita kontablea, ama saltzaile dena batean eta beranduxeago bertako kutxazain).

Bada sasoi eta giro hartan, suposatzen zen hauexek zirela emakume baten ikasi behar zituenak: irakurtzen, idazten, josten, lau erregelak (batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak) eta kultura pittin bat. Guztia gazteleraz, noski.

Horixe ikasi nuen, eskola justu hamalau urte bete ondoren utzi nuen arte. Josteari, adibidez, bost urtetatik hamalau horietara, arratsalde guztiak eskaini nizkion. Itzultzen ginen bazkaltzetik eta josten hasten ginen. Bitartean, gutako norbaitek liburu bat irakurtzen zuen, ozenki (noski, mojek aukeratutako liburuak, mojak izan baintuen irakasle eskolan ibili nintzen bitartean).

## Ikasle izan nahi dut

Ordutegiari hamar minutu edo falta zitzaienean, josteko zerak gorde eta biharamuneko debereak ematen zizkiten.

Eskola utzi nuenean, gurasoek erabaki zuten nik eta ahizpak ofizio bat behar genuela eta horretan eman genituen hurrengo hiru urteak, bulego batean lan egiteko behar zirenak ikasten: mekanografia, kontabilitatea, taktigrafia, frantsesa, ingelesa... eta kultur zertzelada batzuk. Gurekin eskolan ibilitako askok eskolarekin batera bukatu zituen ikasketak, hamalau urterekin eta handik gutxira lanean hasi ziren.

Gure gurasoek, ordea, pentsatzen zuten ofizio bat behar genuela (ez ziguten sekula santan esan ahizpari eta niri, halako batean, ezkontzerakoan, lana utziko genuela eta etxeakoandrea huts bihurtuko ginela, eta hori, sasoi eta leku hartan, jarrera aurrerakoa zen, bizi naitzen artean eskertuko diedana).

Hemezortzi urte nituela eta lanean ari nintzela (bulego batean, zortzi ordu egunean, astean sei egunez eta hamabost egunetako oporrak) hasi nintzen

batxilergoa egiten, nire kasa, etxean, irakaslerik gabe, ez bazen latinerako. Urte gutxiren buruan neu izan nintzen, familiaren adar guztietan, unibertsitatea burutu zuen lehena eta bakarra. Hori bai, karrera bukatzerako, egunean zortzi orduko lana egiten jarraitzen nuen, baina larunbatak libre nituen eta urtean hogeita bat egunetako oporrak nituen).

Kontakizun triste hau irakurtzen duenak, gazte bada, uler dezake zeinen handia den garai haien eta gaurkoen arteko desberdintasuna. Eta edozein adineko delarik ere, nekez ulertuko du zenbateko inbidia (inbidia gaiztoa, zitala) diedan unibertsitatean ikasle huts izan diren guztiei).

Besterik ez bada zahartu ondoren, joango naiz berriro unibertsitatera (karrera bat bukatua dut, besteari urte bete falta zaio), eseriko naiz gainerako ikasleen artean eta irakasleari begira esango diot: benga, irakatsi, ez dut beste zereginik, ez bada zuk irakatsitakoa ikastea. Agian orduan sendatuko zait inbidia. •



**Jaio zenean oso buru handia zuen, ezohikoa.  
3 urte arte ez zen hizketan hasi, eta gerora ere kostatu egin  
zitzaion esaldiak egituratzen...**

**...Albert Einstein zen.**

# MAHARI badakit JOLASA

**EDIZIO  
BERRITUA**

*Euskaraz dibertitzeko 1.800 galdera berri*

Nola ospatzen dituzte Asterix eta Obelixek guda garaipenak?  
Non dago Linpopo ibaia? Zenbat atomo ditu ur tanta batek?  
**Nik Badakit, eta zuk?**

**7 urtetik gorakoentzat**

Prezioa  
**33€**

Harpidedun prezioa

**30€**



**Eskaerak:** [www.argia.com](http://www.argia.com)  
[denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)  
943 37 15 45  
Ohiko salmenta puntuetan



# Telebista eta Hezkuntza

**Eskola-familia-gizartea**

José María SETIÉN, Lolo RICO, Josi BASTERRETxea,  
Fito RODRIGUEZ, Isabel ALBA, Antton ALFARO,  
Asier ALTUNA, Telmo ESNAL,  
Ane MUÑOZ, Xabier PORTUGAL

## hik hasi

elkarrekin **jardunaldiak**

**Abenduak 3 (larunbata)**  
**Miramar Jauregia**  
**Donostia**